

KONTZEJUPETIK

OÑATIKO UDAL ALDIZKARIA

2021eko ekaina / 317. zenbakia

www.oñati.eus  



BIZITZEKO BIDAIA

Cusco (Peru) eta Rio de Janeiro (Brasil)
arteko bizikleta bidaia egiten ari da
Nekane Santos oñatiarra



Andeetan, 4.700 metroko altueran.

» **NEKANE SANTOS** bidaiaria eta abenturazalea

"Bizikletan bidaiatzea bizitza bera bezalakoa da"

Cusco (Peru) eta Rio Janeiro (Brasil) arteko bidea bizikletaz egiten ari da Nekane Santos oñatiarra. Andeak eta Amazonia zeharkatuta, Brasilgo itsasertzean dabil orain, 5.000 km. egin ostean.



"Argi pentsatzeko momentu asko ematen dizkit bizikletak, bidaiatzen nabilenean. Bizikletan ibiltzea, bizitzarekin konparatu daiteke: aldapak gora daude, momentu lasaiak, dibertigarriak, zoriontsuak, eta baita aldapak behera ere. Beti pentsatu behar da aldapak ez direla bukaezinak; beti egongo dira ondoren lautadak eta aldapak behera". Nekane Santos Conderena (Oñati, 1988) da gogoeta. Duela bost hilabete abiatu zen Cusco hiritik (Peru) eta Río de Janeirora (Brasil) iristear da, bizikletan 5.000 kilometrotik gora egin ostean.

Nondik nora zabilta orain?

Urtarrilaren 9an abiatu ginen Cusco hiriburuko (Peru) San Blas auzo enblematikotik, Rio de Janeirora (Brasil) iristeko asmoz. Andeak zeharkatu ondoren, Puerto Maldonadora (hego-ekialdeko oihana) jaitsi ginen, Brasilen sartzeko. Ontzi batean zeharkatu genuen muga, modu ilegalean, itxita zegoe-lako, eta hiriburura (Brasilia) bidetan abiatu ginen gure egoera legeztatzeko. Brasilek dituen 26 estatuetatik lau igaro ditugu (Acre, Rondônia, Mato Grosso eta Goias), eta une honetan San

Jorge izeneko herritxo batean harrapatu nauzu, Chapada dos Veadeiros parke nazionalako sarreran. Dagoeneko, 5.000 kilometrotik gora egin ditugu, eta gure asmoa da Salvador de Bahiara iristea, eta handik, itsasertza jarraituz, Rioraino.

5.000 kilometro! Bada zerbait! Zer dela eta?

Bizirik eta aske sentitzeko go-goak bultzatuta. Duela urte pare bat inflexio puntu bat gertatu zen nire bizitzan. Herriko kooperatiba batean ari nintzen lanean, ebentual, eta niretako moduko lanpostu bat atera zenean, ez nintzen hautatua izan. Kolpea izan zen, baina alde positibotik begiratzea erabaki nuen, eta nire burua bizitzeko beste era batean proiektatu nuen. Nire denboraren jabe izatea erabaki nuen, eta bizitzeko beste modu batzuk ikasten hasi.

'Sistema'tik aldentzeko gogoz, Hego Amerikan zehar bidaiatzea erabaki nuen, Buenos Airesetik (Argentina) Usuhaiara aurrena, eta Kolonbiara ondoren; gehiena auto-stopez. Bederatzi hilabete guztira. Eta Oñatin lau hilabete egonaldia egin ostean, Cuscora (Peru) bueltatzea erabaki nuen, Inken Valle Sagrado izeneko gune magiko hartan denboraldi batez bizitzeko asmoz.

Han nengoela, *Wasikletan* (Bizikletaren Etxea) elkarte eza-gutu nuen. Bizikletaren erabilera bultzatu eta azpiegiturak sustatzea helburu duen talde bat da, eta bertako taberna-jatetxean lanean ari nintzela, ziklo-bidaiari asko ezagutzeko aukera izan nuen. Tartean, Sebastian, Hego Amerikari bizikletaz buelta eman nahian ari den ekuadortarra, eta



harekin bat egitea erabaki nuen. Ziklista profesionala izandakoa da; oso pertsona baikorra, alai eta lagun ona. Nik baino buru hotzagoa du eta esperientzia handia bizikleta munduan.

Aurrez ba al zenuen bizikletan ibiltzeko ohiturarik?

Harreman esturik ez, baina bidaiari batzuk eginak nituen Euskal Herrian; behin Bizkaia eta Gipuzkoako kostaldean zehar ibili nintzen bi astez, eta esperientzia oso polita izan zen.

Gainera, Cuscon nengoela, hiriko erdigunetik 10km.-ra bizi nintzen, 3.500 m.-ko altueran, eta bizikletan ibiltzen nintzen zurrera eta atzera, fisikoki prestatuta nengoela esan daiteke.



«Bizirik eta aske sentitzeko gogoz abiatu nintzen, ekipaia gutxirekin eta etortzekoa dena bizitzeko gogo handiz»

«4.700 m.-ko bi mendate igo genituen Andeetan. Gogorra egin zitzaidan altuera horretan lo egitea»

Baina halako bidaiari luze bat egitera, alde handia dago. Pent-satzen dut zalantzak edo beldur-rrak ere izango zenituela, ala?

Esan dizudan moduan, Wasikleta elkartearen bitartez ziklo-bidaiari askoren esperientziak ezagutzeko aukera izan nuen. Astebeteko irteera bat ere egin genuen 'Valle Sagrado'ra, eta asko ikasi nuen beraiengandik. Argi daukat bihotzari kasu egiten jakin behar dugula, eta beti dagoela aukera bidaiari amaitutzat emateko. Uste dut egokiagoa dela jokabide hori, zer izan ote zitekeen zalantzarekin eta penarekin gelditzea baino. Horregatik erabaki nuen Sebas lagunarekin abiatzea, ekipaia gutxirekin eta esperientzia berriak bizitzeko gogo biziarekin.

Andeak, Amazoniako oihana... kontraste handiko lekuetan ibili zara. Zerk harritu zaitu gehien?

Ohitura, bizimodu eta errealitate oso desberdina bizi duten lekuak eta pertsonak ezagutu ditut, bai. Andeetan, 4.000 metrora bizi diren pertsona umil eta zorrotzak; Puerto Maldonadora bidean, meategietan aritzen diren pertsonak (mafiak, prostituzioa...). Bertan sentitzen den energia nahiko fuertea da eta bidaiari asko bertan geratzen dira lanean (musika egiten, artisautza saltzen...) diru asko mugitzen delako, baina guk azkar alde egin genuen handik. Geografikoki eta klima aldetik oso polita iruditu zitzaidan arren, psikologikoki gogorra izan zen lau egunez igotzen egotea eta altuera horretan lo egitea; 4.700 metrora iristen ziren bi mendate igo genituen eta ondoren, egun batean, lau ordutan, 4.000 m.

Urte askotan zuekin

© 688 764 299

Portu Kale 5 • Tel: 943 78 12 65 • www.mapfre.es



Jaione San Miguel Ugarte

MAPFRE
OÑATI





jaitsi genituen, klima eta paisaia erabat aldatzeraino.

Dena den, injustiziak ikustea da zailena, niretzat. Desberdintasun sozialak, umeak lanean ikustea, matxismoa (Brasilen, adibidez, baimena eskatzen diote Sebastiani, nirekin berba egiteko), arrazakeria (Hego Amerikan kanpotarrak hobeto tratatzen dituzte bertakoak baino)...

Zenbateraino planifikatzen da aurrez era honetako bidaia bat?

Gure kasuan inprobisazioa da nagusi. Eguneroko martxak agintzen digu non lo egin, zenbat egun gelditu toki batean, noiz desbideratu leku bat eza-gutzeko... Errepidera irteten garenean 80-100 kilometro egitea gustatzen zaigu. Baina egun denak ez dira berdinak.

Brasilen sartu ginenetik ia ez dugu sukaldatzen, etxe batean



«Injustiziak ikustea egiten zait zailena: desberdintasun sozialak, matxismoa, arrazakeria...»

«Lo egitearen truke ez dugu inoiz ordaintzen»

gelditzen ez bagara behintzat. Hemen '0 fomme' (zero gose) legea dago, eta inor ez da gosez hiltzen. Alde horretatik Brasil oso eroso da bidaiatzeko; janaria eskaintzen dizute bizikletan ikustean, eta edozein gasolindegitan dutxa beroa, edateko ur izoztua eta kafea debalde lortu daiteke.

Lo egitearen truke ere ez dugu inoiz ordaintzen; su-hil-tzaileen parkeetan, gasolindegietan, Couchsurfing edo Warm Shower aplikazioen bidez, bertakoen etxeetan... Jende asko dago gure bidaian zaintzen gaituztenak. Guk beti oparitxo bat ematen diegu; eskuz egindako pultsera bat, argazkiren bat, gure esperientziaren berri... Jasotzen eta ematen duzunaren artean oreka egon dadin saiatzen gara.

Hainbeste kilometro errepidean... Aparteko ustekaberik izan al duzue?

Brasil kamioi gehien duen munduko hirugarren herrialdea da, eta milaka kamioirekin partekatu dugu errepideea. Gainera, kamioilariak lasai asko aitortzen digute alkohola eta legez kanpoko sustantziak kontsumitzen dituztela, ordu luzeetan gidatzera derrigortuta daudelako. Baina, zorionez, ez dugu aparteko arazorik izan.

Bizirik eta aske sentitzeko asmoz abiatu zinela esan duzu. Lortu al duzu? Zer eman dizu esperientzia honek?

Nik uste dut askatasun eza dela gizakiok izan dezakegun sententziazorik txarrenetariko bat, eta, hain zuzen, helburu horrekin abiatu nintzen Oñatitik denbora baterako, bizimodu eroso utzi eta nomada izateko gogoz, bidaiatzera, leku eta pertsona des-

ANE MERTZERIA

- Josteko zerak
- Lentzeria
- Umeen jantziak

Kale Barria, 54 OÑATI

Cartonajes Arregui, S.A.

- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI

Nekane eta 'Saturnina'

>> Bizikletei izena jartzeko ohitura dago ziklo-bidaiariaren artean, eta Nekane 'Saturnina' izenez bataiatu zuen berea, Brasilgo lehen hirian lo-lekua eskaini zien gizonaren omenez, eta, aldi berean, ahizparen omenez ere bai, berak erakutsi bai- tzion Takolo, Pirritx eta Porrotxen *Saturnino* kanta.

Azken bost hilabeteetan horixe bilakatu da Nekaneren ahizpa, laguna, konfidentea eta baita etxea ere bai, nolabait. Alforja txiki bat bizikletaren alde banatan, 70 litroko motxila bat atzean eta aurrealdean poltsa txiki bat eskura behar dituen gauzekin. Bertan darama behar duen guztia. Alforja batean hotz egiten duenerako arropak; bestean, bero egiten duenerako. Motxilan, koltxoneta puzgarria, lo-zakua, liner-a, moskiteroa, higiene pertsonalerako gauzak eta artisautza egiteko materiala. Denera 25 kilo inguru.



izugarririk behar bidaiatzeko.

Eta Río-ra iritsitakoan zer?

Eztakit. Hasieran Río ipini nuen helmuga bezala, baina oraintxe bertan ez dakit. Kanpotik ikusten dena (karnabalak, futbola eta fabelak) baino askoz gehiago da Brasil. Federekin lotura handia duen herria dela uste dut. Izugarria da. Beraz, Ríora iritsitakoan itsasertzari jarraitu, Sao Paulo (Hego Amerikako hiririk handiena) bisitatu eta Santa Katarinako parajeak ezagutzeko aukeran pentsatzen ari naiz. Eta gero nork daki. Ezer ikasi badut, momentua bizitzen ikasi dut, eta etorkizunaz gehiegi ez pentsatzen. Bizitzak berak emango dit erantzuna. Etxekoak ikusteko gogoia ere badut; asko gogoratzten naiz Peru eta Natale iloba txikiekin, eta Martxel ezagutzeko irrikaz nago. Eskerrak eman nahi dizkiet gurasoei, ematen didaten laguntzagatik, eta sare sozialen bidez animoak eta indarra bidaltzen didaten lagunei ■

berdinak ezagutzera, nire burua hobeto ezagutzera, heldutasun emozionala lortzera, bizitzeko beste modu batzuk esperimintatzera....

Esperientzia oso aberasgarria izaten ari dela uste dut. Laguntza eskatzen ikasi dut, itxaroten, ezezkoak onartzen. Gehienetan, ezezko baten ondoren zerbait hobea etortzen da; gauzak erakartzeko gaitasun izugarria

dugu gizakiok, eta gutxien espero duzunean agertzen dira. Pazientzia edukitzen ikasi dut. Gauzak momentuan lortzen ohituta gaude, baina beti ez da horrela izaten; energia ona edukiz gero, bakarrik lortzen dira gauzak. Beldurrak eta lotsak galduz gero, bizitza sinpleagoa dela ikasi dut, eta erosotasuna alde batera uzteko prest egonez gero, ez da diru askorik edo plangintza

«Laguntza eskatzen ikasi dut, itxaroten, ezezkoak onartzen... Gehienetan, ezezko baten ondoren zerbait hobea etortzen da»

GASTRONOMIA KONTZEPTU

Errazioak, gourmet dastaketak, konbinatu tropikalak, etxean egindako gozoak, ospakizunetarako tarta pertsonalizatuak

...
+

EGUNEKO MENUA

LAPIKO GORRI

eta orain, terraza berria

+
Etxera eramateko zerbitzua (enkarguz)

Ultzezin 11 • Tel. 943 50 20 70

BERRIA ONATIN



Amaia Irizar, Debagoieneko Mankomunitateko Enplegu teknikaria

LANBIDE HEZIKETA PRIMERAKO AUKERA

Ekainaren 18ra arte dago zabalik eskualdeko Lanbide Heziketako ikastetxeetan aurrematrikulatzeko epea

Debagoieneko Mankomunitateak eta eskualdeko lanbide heziketako zazpi ikastetxeek LANBIDE HEZIKETAREN AZOKA antolatu ohi dute urtero Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzaz, baina azken bi urteotan ezin izan da burutu, Covid-19aren ondorioz. Horregatik, oraingoan webgunea sortzea erabaki dute (www.fpdebagoienalh.eus) Lanbide Heziketa arloko eskaintza eta lan merkatura begira irekitzen dituen aukera eta bideen berri emateko. Mankomunitateko enplegu teknikari Amaia Irizarrek eman dizkigu azalpenak.

Debagoiengan dauden lanbide heziketako 7 ikastetxeen eskaintza aurkituko dugu webgune berrian. Zentro bakoitzak bere fitxa propioa dauka eta bertan kontsulta daiteke ze formazio mota eskaintzen duen (ikasgaiak, sartzeko baldintzak, irtenbide profesionalak...).

Lanbide Heziketaren inguruan bailarako enpresari ezberdinen testigantzak, ikasle ohienak, lanbide heziketarekin lotutako berriak... eta beste hainbat gauza ere aurkituko dugu bertan. "Zer

ikasle nahian dabilzan ikasle, guraso eta orientatzaileentzat tresna oso erabilgarria eta lagungarria" dela uste du Irizarrek.

ZER DA LANBIDE HEZIKETA

Lan merkatuarekin lotura estua duen ikasketa programa da. Bi urtetan lanerako prestatzen zaitu. Eskaintza edo aukera baliotsua da edozein gazterentzat eta lanerako prestatu nahi duten pertsona guztientzat.

Lanbide Heziketaren baitan

Erdi mailako eta Goi mailako zikloak bereizten dira. Erdi mailako ziklo bat ikasteko gutxienez DBH titulua eduki behar da. Eta Goi mailako ziklo bat egiteko, Batxilergoa, edo aurrez Erdi mailako ziklo bat egina izatea.

Bai Erdi mailakoak eta baita Goi mailakoak ere bi urteko ikasketa programak dira, eta lanean hasteko behar adinako kualifikazioa lortzen da. "Lanbide batzuetarako nahikoa da erdi mailako ziklo bat (adibidez, erizain laguntzaile izateko), baina, bestalde, in-

dustria arloko enpresa gehienetan goi mailako zikloa eskatzen dute" azaldu digu Mankomunitateko Enplegu teknikariak.

BIDE GUZTIAK IREKITA

Goi mailako ziklo bat egin ostean, beste ziklo bat ikasi edo unibertsitatean hasteko aukera dago. "Bide guztiak zabalik geratzen dira, eta hori jakitea inportantea da" argitu digu Irizarrek. "Eskola zaharrek diren pertsonak (EGB ikasi zutenek) sarbide froga bat egin behar izaten dute Erdi edo Goi mailako ziklo bat egin ahal izateko".

Batxilergoa amaitu ostean unibertsitatera joatea izaten da ohikoena, baina Lanbide Heziketa ere izan daiteke aukera ona. "Duda barik, eta ez da ikusi behar porrot bezala, inola ere. Gerta daiteke Batxilergoa edo karrera bat ikasten hasi eta gustura ez aurkitzea, eta, aldiz, ziklo bat ikasten hasi eta berriro motibatzea, prestakuntza mota honek daukan enfoke praktikoagatik" dio Irizarrek.

"Eta badaude, baita ere, unibertsitate ikasketak amaitu ondoren ziklo bat egitea erabakitzen dutenak, formazio praktikoa lortzeko: robotika zikloa egiten duten ingeniariak, edo myGADE gradua egin ostean gestio arloko ziklo bat ikasten dutenak, edo laborategian trebatzeko zikloa egiten duten biologoak, adibide batzuk aipatzearen" aipatu ditu Irizarrek. "Inportantea da ulertzea ibilbide posible ezberdinak daudela nahi dugun tokira iristeko, eta horietako bat dela Lanbide Heziketa" gaineratu du.

PRAKTIKEN GARRANTZIA

Praktikei garrantzi handia ematen zaie lanbide heziketan. Zikloek 2.000 orduko iraupena dute, eta horietatik 400 bat praktikak izaten dira

inguruko enpresetan. Gainera, *Dual* sistemaren bidez ikasketak eta lana partekatzeke aukera dago hainbat ziklotan, eta *Erasmus+* programaren bidez praktikak atzerrian egiteko aukera ere badago.

ESKAINNTZA ZABALA

Gaur egun, familia edo arlo profesional ezberdinetako 24 ziklo ikasteko aukera dago Debagoieneran. "Beste eskualde batzuekin alderatuz, eskaintza zabala eta aberatsa" dela uste du Irizarrek. "Normalean, lanbide heziketako zentroen eskaintza eskualde horretako ehun profesionalari lotuta egoten da; horregatik, adibidez, Debagoieneran fabrikazio mekanikoarekin lotutako hainbat ziklo daude".

Irizarren ustez, Lanbide Heziketa ikasteko aukera aztertu eta baloratu egin behar harko lukete zer ikasi erabaki guran dabilzan gazteek. "Langabezian dagoen jendearentzat ere aukera ona da. Azken batean, bi urteko ikasketa plana da, ez dira ikasketa luzeak, eta frogatuta dago prestakuntza funtsezkoa dela laneratze prozesuan. Eta lanean egon arren, kualifikazio maila hobetu nahi duten langileentzat ere aukera ona da, izan ere, gaur egun gero eta garrantzia handiagoa baitu etengabeko prestakuntzak. Ildo horretan, 'Eskaintza partziala' izeneko aukera dago, malguagoa, ziklo bat hiru urtetan egiteko aukera ematen duena" azaldu du Irizarrek.

AURREMATRIKULA EPEA

Ekainaren 18ra arte dago zabalik aurrematrikula epea Lanbide Heziketa zentroetan, eta oso garrantzitsua da izena ematea, uztailean irekiko den matrikula aldian lehentasuna izateko. ■



Eskualdeko lanbide heziketako zentroen eskaintzari buruzko informazio osatua aurkituko dugu www.fpdebagoienalh.eus webgunean

www.fpdebagoienalh.eus

LANBIDE HEZIKETAKO ESKAINNTZA DEBAGOIENERAN

ARETXABALETAKO LANBIDE ESKOLA

- Erizaintzako zaintza osagarriak [Erdi mailakoa](#)
- Ibilgailuen Elektromekanika [Erdi mailakoa](#)
- Karrozeria [Erdi mailakoa](#)
- Mekanizazioa [Erdi mailakoa](#)
- Soldadura eta Galdaragintza [Erdi mailakoa](#)
- Menpekotasun Egoeran dauden pertsonentzako arreta [Erdi mailakoa](#)
- Automozioa [Goi mailakoa](#)
- Eraikuntza metalikoak [Goi mailakoa](#)

ARIZMENDI IKASTOLA

- Erizaintzako zaintza osagarriak [Erdi mailakoa](#)
- Osasun Larrialdiak [Erdi mailakoa](#)
- Mikroinformatikaren sistemak eta sareak [Erdi mailakoa](#)
- Gizarte- eta Kirol-irakaskuntza eta Animazioa [Goi mailakoa](#)

MARIAREN LAGUNDIA

- Mendekotasun-egoeran dauden pertsonentzako arreta [Erdi mailakoa](#)
- Gizarteratzea [Goi mailakoa](#)

MIGUEL ALTUNA L.H.

- Administrazio kudeaketa [Erdi mailakoa](#)
- Instalazio elektriko eta automatikoak [Erdi mailakoa](#)
- Mekanizazioa [Erdi mailakoa](#)
- Administrazioa eta finantzak [Goi mailakoa](#)
- Zuzendaritzari laguntzeko Idazkaritza [Goi mailakoa](#) (2.kurtsoa)
- Diseinua fabrikazio mekanikoan [Goi mailakoa](#)

- Fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa (eskaintza partziala aukeran) [Goi mailakoa](#)
- Mekatronika Industriala [Goi mailakoa](#)
- Automatizazio eta Robotika Industriala (eskaintza partziala aukeran) [Goi mailakoa](#)
- Fabrikazio adimenduna kurtsoa [Especializazio programa](#)
- Forjaketa Prozesuen Diseinua eta Ekoizpena lanbide-espezializazioa [Especializazio programa](#)

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa [Goi mailakoa](#)
- Fabrikazio Mekanikoko diseinua [Goi mailakoa](#)
- Fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa [Goi mailakoa](#)
- Mekatronika Industriala [Goi mailakoa](#)
- Automatizazio eta Robotika Industriala [Goi mailakoa](#)

OÑATI BHI

- Natur ingurune eta aisialdiko gidarlanetako teknikaria [Erdi mailakoa](#)
- Mantentze-lan elektromekanikoa [Erdi mailakoa](#)
- Mekanizazioa [Erdi mailakoa](#)

OÑATI GESTIO HEZIKETA

- Administrazioa eta Finantzak [Goi mailakoa](#)
- Zuzendaritza Idazkaritza [Goi mailakoa](#)
- Salmenten Kudeaketa [Goi mailakoa](#)

ZAPOREAK

herri oso bat proiektuaren atzean

Zaporeak-ek Lesbosen daukan sukaldean laguntzen aritu da Iñigo Aranburu, kanpalekuetan gatibu dauden errefuxiatuentzako janari duina prestatzen. Laguntzera joan da, baina eman baino gehiago jaso egin duela aitortu digu.

Futbol zalea eta, bereziki, Realzalea izaki, bere baitan ka-bitu ezinik iritsi zen Lesbos uhartera (Grezia), donostiarrek kopako finala irabazi berritan, eta handik ere gainezka eginda etorri dela aitortu digu, Zaporeak-eko lantaldean eta errefuxiatuekin bizi izandako esperientziak eta emozio sakonak borborrean dituela. "Asko ibili naiz munduan zehar azkenaldian, baina Lesbosen bizi eta sentitu dudana izugarria izan da. Ez dut uste halakorik berriro biziko dudarik; gogorra izan da fisikoki eta emozionalki, baina era berean oso aberasgarria", aitortu digu Iñigok, Oñatira iritsi berritan.

Apirilaren 5ean abiatu zen Greziara, eta astebeteko koarentena aldia egin behar izan zuen aurrena, berarekin joandako hiru lagunekin batera (madrildar, asturiar eta euskal herritar bana). "Oso ondo etorri zitzaigun itxialdia, elkar ezagutzeko, geure artean berba egiteko eta talde bezala bat egiteko. Eta uste dut igarri dela hori hurrengo lau asteetan egin dugun lanean".

Intxaurrendoko (Donostia) Gastronomía Elkarteak kideek sortutako proiektua da *Zaporeak*, elkartasuna eta gastronomía uztartzen dituen. Gerra eta pobreziatik ihesi, Europara iristeko ahaleaginean Grezian gatibu dauden errefuxiatuei janari duina eta elikagarria eskaintzen dihardu azken urteotan. Egunero 1.400 otordu bero prestatzen ditu, eta bertan aritu da Iñigo boluntario gisa. "Goizeko 8etan hasten zen gure lan jarduna.



Aranburu sukaldeko lanetan aritu da bereziki, Lesbosen.

Barazkiak zuritu, txipitu, kozinatu, platereratu... Okindegi bat ere badauka Zaporeak-ek, eta han ere aritzen ginen pita-ogia egiten. Bestelako lanak ere egin behar izaten dira: elikagaiak biltegitatu, lapikoak eta sukaldea garbitu, komunak... Denetik pittin bat. Taxilari lanak ere bai, askotan, sukaldean eta okindegian laguntzera joaten diren errefuxiatuak garraiatzeko".

Han bizi den euskal herritar batek koordinatzen du proiektua, eta harekin batera hemendik joandako lau boluntario eta hogeit bat errefuxiatu aritzen dira lanean Zaporeak-en sukaldean.

CORTABARRIA

INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

Etxe eta lokalen gestio orokorrak

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta
- Haziendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 behea • Tel.: 943 78 05 87 • email: inkorta@teleline.es

GARBIKETA
ADMINISTRAZIOA
ETA KONPONKETAK

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkarteen administrazioa
- Konponketa orokorrak



653 70 45 47

Oñati

Janaria kanpalekura eramateaz Holandako GKE bat arduratzen da. "Arratsaldeak atsedean hartzeko izaten dira, baina, askotan, errefuxiatuekin geratzen ginen igeri egiteko, ingelesa praktikatzeko edo hondartzan garagardo bat hartu eta musika partekatzen egoteko" gogoratzen du Iñigok, nostalgia puntu batekin. Zaporeak-ek Lesboseko hiriburuan (Mytiline) daukan apartamentu batean egiten zuten lo.

GOGORRA, BAINA ABERASGARRIA

Bete-beteko esperientzia izan da, Iñigok aitortu digunez. "Harreman estua egin dugu errefuxiatuekin; bizipenak eta ametsak partekatzeak aukera izan dugu eta, benetan, emozionalki oso indartsua izan da; gogorra, baina oso aberasgarria". Errefuxiatu gazte batek asilorako paperak jaso zituen unea ere bertatik bertara bizitzeko aukera izan zuen, eta ez omen dago hitzik hura deskribatzeko; "haren poza! haren ilusioa!".

Tamalez baina, errefuxiatu gehienek egoera oso bestelakoa da. Une honetan 7.000 inguru errefuxiatu dauden Lesbosen kanpalekuan, osasun eta higie baldintza oso eskasak. "Gerratik ihesi datoz gehienak, bizimodu duin bat egiteko itxaropenez; sekulakoak pasa behar izan dituzte hara iristeko, eta Europako atea ikusi dutenean, preso bezala aurkitzen dira, aurrera egin ezinik. Lur jota daude asko, ezin dietelako bizimodu duin bat eskaini seme-ala-



« Egunero 1.400 otordu bero prestatzen ditu Zaporeak-ek, errefuxiatuei janari duina eta elikagarria eskaintzeko »

« Errefuxiatuekin bizipenak eta ametsak partekatzeak aukera izan dugu eta, benetan, emozionalki oso esperientzia indartsua izan da »

« Zaporeak proiektua oso gardena da eta babes handia du euskal gizartearen aldetik. Herri oso baten proiektua dela esango nuke »



bei. Beste askok etorkizun beltza dute, asilo politikoa lortu ezean, deportatu egiten dituztelako; bizitza arriskuan dutela frogatzea ez da batere erraza, eta bizimodu duin baten bila ibiltzea ez omen da nahikoa arrazoi" salatzen du oñatiarrak.

Zoritzarrez, Europak ez-ikusiarena egiten du eta GKE-en esku geratzen da iheslariei oinarriko beharrak asetzeko ardura. "Lotsagarria da. Azken batean jende apala baino ez da, lan egin nahi duena eta seme-alabei etorkizun hobea eman nahi diena. Denok gara pertsonak eta denok merezi dugu duintasunez bizitzeko aukera". Giro nahasia eta tentsio maila handia somatu du Iñigok, eta ez du bazterten epe motzean zerbait larria gertatzea kanpalekuetan.

HERRI OSO BATEN PROIEKTUA

Egoera horretan, Zaporeak elkarteak egiten ari den lan bikaina goraiatu digu Iñigok. "Oso proiektu gardena da eta babes handia du euskal gizartearen aldetik. Egiten diren deialdi guztiek oso erantzun ona jasotzen dute, eta nik esango nuke herri oso bat dagoela proiektu honen atzean. Han nengoela, Hotz-Oñatik antolatutako janari bilketa egin zen hemen, eta oso hunkigarria zen hemen bildutakoaren argazkiak ikustea Lesbosen". Beraz, laguntzen jarraitzeko deia luzatu du Iñigok, bakoitzak ahal duen moduan. Lesbosen joatera ere animatu nahi du jendea, "han jabetzen zarelako arazoaren benetako

Zuntza 600 Mb | Mugikorra 7 GB

Simetrikoko | + Dei mugagabeak

IRAUNKORTASUNIK GABE

42 € HILEAN

BETIRAKO

BEZA barne

BANATZAILE BAIMENDUA

KONTRATATU ZURE GUUK ZUNTZA LIZKER INFORMATIKA DENDAN

Atzeko Kalea, 32, 20560 Oñati
943 09 06 00

guuk

ZUNTZA MUGIKORRA TB

BEZa barne. Eskaintza 2020/11/30ra arte egongo da indarran Euzkadin eta Nafarroan. Linea osagarriak edo 1GB-ko doako Guuk tarifa. "Zuntza + Mugikorra" eskaintza hauetan bada, linea osagarriak "Mugikorra Bakarrik" tarifa linea prezioak izango dituzte, GB eta destakako minutu kopuru bereak. 1GB-ko doako Guuk tarifen kasuan, prezio berria 6,96€/hil izango da. "Zuntza + Mugikorra" pakete bakoitzeko linea mugikorren gehienezko kopurua 4 izango da. Linea nagusia kontari hartu gabe. "Zuntza + Mugikorra" eskaintzak ez du iraunkortasunik edo zigorririk izango. "Mugikorra Bakarrik" kontratua: Rinko eta mugikorrak nazionalerako dei mugagabeak, 7GB eta 40MB min. Baga hori gainditzean, abiadura 16 Kb/s-ia jaitziko da. Nahiz duzun eraman diezakezu bago zerbitzari, baina bidaltzeaz 30 eguneko epean itzuli beharko duzu; bestela, 121€-ko zigor bat ordaindu beharko duzu (BEZa barne). Kontatutako gainerako baldietzak heinean: www.guuk.es

dimentsioaz".

Ez da komunikabideetan agertu zalea, eta ez du laudoriorik nahi Lesbosen egindako lanagatik, baina han ikusi eta bizitakoaren ondoren, Zaporeak elkartearekin eta han ezagutu dituen errefuxiatuekin zorretan dagoela sentitzen du. Horregatik, laguntzen jarraitzeko asmoz



itzuli da, eta, dagoeneko, baditu proiektu batzuk esku artean. "Beharra daukaten pertsonen lagundu, kontzientziarioekin babestu eta besteak beste, abesti bat ere sortzen ari gara lagun batzuekin, Zaporeak bezalako elkarten lana txalotu eta errefuxiatuekiko elkartasuna sustatzeko". Ezkio eta Mendaro aldeko ikastetxe batzuetara ere joango da (hangoa da Lesbosen boluntario aritu den lankideetako bat) eta hemen ere prest dago bere esperientzia azaldu eta kontzientziario lana egiten laguntzeko. ■

ARGAZKI ERAKUSKETA

LESBOSEKO BEGIETATIK

Yusef Alshewaili irakiarraren argazkiak, errefuxiatuen esparruko eguneroko errealitatearen erakusgarri



ERAKUSKETA

Ekainaren 8tik 19ra ELTZIAko topagunean

- Asteartetik ostiralera: 18:00-20:00
- Larunbatak: 12:00-13:30

EREI izeneko irabazi asmorik gabeko elkarteak sortu berri da Oñatin, pertsona errefuxiatu eta migratzaileen errealitateak bistaratzeko helburuarekin, besteak beste. Eta asmo horrekin argazki erakusketa bat antolatuta dute ekainerako.

Lesbos uhartean (Grezia) errefuxiatu egoeran bizi den Yusef Alshewaili irakiarraren argazkiak egongo dira ikusgai. Alshewailik hiru urte daramatza Lesbosen, eta bere argazkien bidez errefuxiatuen kanpamentuetako egoera latza ikustarazi eta salatzea du helburu.

Hogei bat argazki dira guztira, eta Eltzia topagunean egongo dira ikusgai **ekainaren 8tik 19ra**; asteartetik ostiralera, arratsaldean (18:00-20:00), eta larunbatetan goizez (12:00-13:30) bisitatu ahal izango da argazki erakusketa.



Gualbi
asesores

Bezeroen beharrei erantzuteko prest!

Kontabilitate administratiboa • Fiskalitatea
Lan-arloa • Kontu-ikuskaritza
Merkataritza • Abokatuak

Euskadi Etorbidea 6

T.: 943 781 648

onati@gualbiasores.com

www.gualbiasores.com

Matrikulazioa 0-1

Elkarrizketa pertsonalak eta bisita gidatuak
urte osoan zabalik



Gurasoen eta tutoreen arteko taldeko bilerak:

HH 0-1 urte: ekainak 29, martitzena, 18:00etan

HH 2 urte: ekainak 30, eguaztena, 18:00etan

» **LARRAITZ UGARTE** / EH Bilduko Mahai Politikoko kidea

"Herri honek berpizkunde edo jauzi bat eman behar duela uste dugu"

EH Bilduren bigarren biltzarretik atera den Mahai Politiko berriko komunikazio arduraduna da Larraitz Ugarte. Koalizioak markatutako ildo eta helburuez jardun dugu.

Hurrengo lau urteetarako lan ildoak onartu ditu EH Bilduk, krisi sakonaz gain (ekonomikoa, osasun mailakoa ...) gure bizitzetara hainbat aldaketa ekarri dituen pandemia giroan. Zein neurritan baldintzatu du horrek EH Bilduren bide orria epe motz-ertainera?

Pandemiak agerian utzi ditu egungo sistemak dituen arrakalak: osasungintza indartsua behar da, gure adinekoak baldintza duinetan zaindu, langileriak bizitzeko oinarritzako izan... zerbitzu publiko indartsuak, jendarte kohesionatuago bat eta demokraziarekin sakon konprometitutako lidergo politiko bat behar dira. Uste dugu jendartearen bizitzak hobetzen lanean jarraitu behar dugula eskuinak duen agendari aurre eginez.

Hamar urteko ibilbidean alternatiba sinesgarri bezala kontsolidatu da EH Bildu, eta orain alternantzia hori erkidego mailan egi bihurtzea da zuen erronka eta helburua. Egingarri ikusten al duzu epe motzean?

EH Bildu hazten ari den inda-

rra da. Lehen indar municipalista Hego Euskal Herrian, hiri eremuetan ere hazten ari dena eta geografikoki ere baitaila inportanteak irabazten... Pazientziarekin geroz eta sektore zabalagoak konbentzitu nahi ditugu guk badugula jendarte ulertzeko beste modu bat eta modu horrek jende gehienaren bizitzetan hobekuntza bat ekarriko diola.

lazko EAeko hauteskundeetan 250.000 boto (%27,8) jaso zituen EH Bilduk (botoetan igo zuen alderdi bakarra), orain arteko langatik (277.923) oso gertu, baina ez omen duzue sabaia jo oraindik. Nondik uste duzu jaso ditzakezuela boto-emaile gehiago, ezkerreko espaziotik ala abertzaletasunetik? Orain arteko esperientzien arabera, badirudi politika nazionalis-

tetan sakontzeak uxatu egin izan dituela boto-emaile ezkertiarak.

Herri honek berpizkunde edo jauzi bat eman behar duela uste dugu. Jauzi bat subiraubarantz eta jauzi bat gure bizitzak, ekonomia, zaintza, hezkuntza eta abar hobetzeko. Jendarte konbentzitu behar dugu hobeto bizitzeko tresnak behar ditugula, pandemiak erakutsi baitigu gure autogobernua zein ahula den. Era berean Euskal Herrian ezkerreko erreferentzia eraginkorra EH Bildu da. Guk garenari eutsiz zabaldu nahi dugu. Aldaketa maite dugu, ez gara marketin hutsaren aldeko.

Azkenaldian ezkerreko alderdien aliantzen aldeko apustua egiten ari da EH Bildu, politika aurrerakoiak egin ahal izateko. Baina, bestalde, alderdi sozialistako buruzagiek, bai Espainia eta baita Euskadi mailan ere, argi eta garbi esan dute ez dutela inoiz onartuko autodeterminazio erreferendumik.

Europar ikusten ari gara iraganen hori esaten zutenak ere aldatu direla. Begira Eskozia. Ez dugu Espainiaren-gandik eta Frantziaren-gandik ezer espero, ez gara inozoak. Baina herri honetan gehien-goak herri gisa aurrera egiteko borondatea badu, modu batera edo bestera egingo du eta guk bitartean aukera leho guztiak baliatuko ditugu Euskal Herria Europar estatu

INDEPENDENTZIA

» **Aldebakarreko estrategia eta aldebikoa konbinagarriak dira. Nazioarteak ikusi behar zaitu estatuarekin hitz egin nahian. Ate hori beti irekita egon behar da. Unean unean ikusi beharko da zein bide den eraginkorragoa**



Zubillaga auzoa 12 • Industrialdea • OÑATI (Gipuzkoa)
Tel.: 943 78 11 15 • www.batuak.com

independiente bat izan dadin.

Politika aurrerakoiak aipatu ditugunez, zein dira arlo sozial eta ekonomikoan EH Bilduk hartuko lituzkeen erabaki nagusiak gobernura iritsiz gero?

Inbertsio publikoa indartuko luke, politika industrial ego- kitu bat planteatu, hezkuntza modernitatera eraman, zain- tzen arloa berrantolatu, etxe- bizitza problematikari aurre egin, trantsizio energetikoari adarretatik heldu eta politika feministak erdigunean jarri. Eta hori guztia beste gober- nantza eredu batekin, herri- tarrei entzunez eta haiekin.

Burujabetzaren ikuspun- tutik, zein da EH Bilduk proposatzen duen bide- orria? Ikusi dugu Katalu- nian ze ondorio dituen al- debakarreko estrategiak. Orain, Esquerrak Madrilgo gobernuarekin akordio bat lortzearen aldeko apustua egin nahi omen du, baina EH Bilduk askotan esan izan du bide hori antzua dela.

Aldebakar edo aldebiko es- trategiak izan behar duen bidea eztabaida faltsua da. Aldebakarreko estrategia eta aldebikoa konbinagarriak dira. Nazioarteak ikusi behar zaitu estatuarekin hitz egin nahian, ate hori beti irekita egon behar da. Trauma gu- txien eragingo lukeen bidea da. Autodeterminazio eskubi- dea aitortu, erreferenduma egiten utzi eta herriaren hitza

NAZIOGINTZA

» **EITBren informatiboetan lehenago agertzen da Espainiako albiste bat ipar Euskal Herriko bat baino. Herri gisa berrartikulatu beharrean gaude, noazio gisa gure hizkuntza, kultura, sinboloak... Guzti hori jokoan dago herri gisa biziraun nahi badugu**



errespetatu.

Baina jendarte antolatu batek, herriaren gehiengo dela frogatuko balu zergatik ez du aldebakarrez aurrera egingo... Unean une ikusi be- harko da ze bide izango den eraginkorragoa, non sortu daitezkeen konplizitateak, non batu indarrak... Gure analisia da D egun bat izatea ez dela posible une honetan, indar akumulazio bat egin behar dugula, gehiago izan behar garela eta lan asko daukagula independentistok aurretik.

Pandemiak bigarren plano batean utzi ditu beste gai asko, baita burujabetzaren inguruak ere. Kezkatzen al zaitu?

Ez da soilik pandemia. EITB- ren informatiboetan ere lehe- nago agertzen da Espainiako albiste bat Ipar Euskal Herriko bat baino... Herri gisa berrar- tikulatu beharrean gaude, nazio gisa gure hizkuntza, kultura, sinboloak... Guzti hori ere jokoan dago herri gisa biziraun nahi badugu.

EH Bilduk Madrilgo go- bernuaren aurrekontuak onartu eta estatu mailako politikan hartu duen pro- tagonismoak ere hautsak harrotu ditu. Zein klabetan ulertu behar da? Koiuntura jakin bati erantzuten dion erabakia da, ala jarraipena izango duen estrategia ba- ten abiapuntua?

Gure bost diputatuek gai- nontzeko indar subiraniste-

kin batera Llotja de Marren sinatu genuen bide orri bati erantzuten dio. Guk uste dugu aukera leiu bat dela, eskuina etortzea okerragoa dela eta gure bozkak deter- minanteak izateak onurak ekartzen dizkiola herri honi. Duela urtebete, adibidez, eus- kal langileei min gehien egin dion lan erreforma bertan be- hera uzteko akordioa sinatu genuen eta orain esan digute hasiko direla erreforma hori kentzen. Horrek esan nahi du euskal langileen bizitzak hobetu egingo direla eta gu oso pozik gaude hori lortzeaz.

Nola baloratzen duzu eus- kal presoeng inguruan Ma- drilgo gobernu edo espe- txe zuzendaritza ematen ari den urratsak? Transferitu berri den espetxeetako es- kumenak zertan lagundu dezake alde horretatik?

Ez dira nahikoak baina urra- tsak dira, dudarik gabe, eta etorkizunean ere urrats ge- hiago egotea nahiko genuke guztiak kaleratu arte. Bitar- tean ohiko legeria aplikatzea eta aske behar luketenak as- katzea eskatzen dugu.

Espetxe eskumenaren transferentzia begi onez ikusten dugu. Alderdi guztien artean badago kontsentsua gai honen inguruan eta uste dugu egokia dela espetxeak hemen kudeatzea. Halere, ez dezagun ahaztu espainiar le- geri penal eta penitentiarioa aplikatzen jarraituko dela. ■



ASEGURU AHOLKULARITZA ESPEZIALIZATUA

ARANTZAZUKO AMA KALEA 9, BEHEA

943 089 006 688 774 531 - WHATSAPP

OINATI@COINBROKER.EUS





EROSTEKO ORDUAN NIRE LEHEN AUKERA, OÑATI

Udal Sozialekonomia
saileko ordezkariak
eta TXANDA ko
kideak kanpainaren
aurkezpenean

Herriko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuen aldeko kanpaina jarri du abian udalak

Pandemia garai honetan egoera bereziki zaila bizitzen ari diren merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu arloko establezimenduen aldeko sentsibilizazio kanpaina jarri du abian udalak, 'Erosteko orduan, nire lehen aukera, Oñati' lelopean. Herritarrak eta, bereziki, gazteak, erosketak herriko saltokietan egitera animatzea da kanpainaren helburua. Bertako saltokiak herriarekin konprometitu daudelako, kaleei bizitza ematen diotelako, herriari nortasuna ematen diotelako, herritarren arteko topaleku direlako, hurbileko eta konfiantzazko tratua ematen digutelako, eskaintza zabala eta aberatsa dutelako...

Erosketak herrian bertan eginez gero, ekonomia eredu jakin baten alde egiten ari garela gogorarazi du udalak; jasangarriagoa, enplegu duina sortzen laguntzen duena, eta aberastasuna herrian bertan uzten duena, besteak beste.

Merkataritzan digitalizazioa sustatzeko programa jarriko du abian udalak

Instagram, WhatsApp Business eta Google my Business bezalako tresnak baliatuz, herriko komertzio eta zerbitzuen lehiakortasuna hobetzea da programaren helburua. Merkataritza bakoitzaren maila eta beharretara egokitutako formazioa eskainiko da. Denon artean, 20 orduko ikastaroa da, dohainik (udalak hartuko du bere gain kostua). Ekainaren 4a da izena emateko azken eguna (943003198 / enplegu@onati.eus).

EROSKETA BONUAK

Tokiko merkataritza biziberritzeko estrategia eta ekintzen baitan, udazkenean diruz lagundutako erosketak bonuen kanpaina berria aktibatuko dela aurreratu du udalak.

Horrez gain, ekintzailatza edo negozio berriak sustatu, lokal hutsen arazoari irtenbidea eman, eta TXANDA elkartearen sendotzera zuzendutako ekimenak ere jarriko ditu abian, besteak beste.



Ingeleseko Akademia
Listening Speaking Reading Writing

Maite Aiestui Kortabarría



•NORENTZAKO:
Haurrentzat,
Gaztetxoentzat
eta Helduentzat

•NOIZ:
Goizean, eguerdian,
arratsaldean eta
iluntzean

•ZER:
Oinarrizko ezagutza,
trebakuntza,
laguntza eta
azterketa ofizialetarako
prestakuntza

Zatozte!
informazioa
jasotzera eta zuen
beharrak zeintzuk
diren azaltzera

www.4sgoiena.com

Arantzazuko Ama, 3 behea

943 53 36 57-685 986 003



IREKITZEAR

Datozen egunetan irekiko da kiroldegiko sarrera nagusia eta falta diren instalazioak: fitness gelak, squasha, sauna, solariuma...

Data zehatza ezin dugu oraindik eman, baina, edozein modutan, egun gutxiko gorabehera izango da, eta ekainaren erdialdera inauguratuko dute Zubikoa kiroldegi eraberritua. Sarrera nagusia irekiko dute, eta horrekin batera, falta diren instalazioak: fitness gelak, sauna, squasha, solariuma...



GIMNASIOA ETA ROKODROMOA



Maiatzaren 17an ireki zuten gimnasioa eta eskalada praktikatzeko boulder-ak. 500m²-ko azalera du gimnasio berriak, eta lehendik egoera onean zegoen ekipamendua osatu du udalak, bizikletak, korrika egiteko zintak, eliptikak eta indarra lantzeko hainbat makinarekin. Aurrerago, ekipamendua osatzen joateko asmoa du udalak, kolektibo ezberdinen beharrei begira, baina gimnasio publiko baten ikuspuntutik beti ere.

Zaintzaile-orientatzaile zerbitzua ere badago gimnasioan. Astelehen, asteazken eta ostiral goizetan (8:00-12:00), astearte eta ostegun arratsaldeetan (16:00-20:00) eta larunbatetan (hilean behin, 9:00-13:00) egoten da monitorea gimnasioan, erabiltzaileei laguntzeko prest.

Eskaladako guneari dagokionez, lehengo bi squashen lekuan egokitu diren bulderrak martxan daude jada, eta rokodromoan azken egiturak instalatzen ari dira. Elkarrekin komunikatuta daude eta, denera, eskalada praktikatzeko 240m²-ko gunea osatzen dute. Udalak eskertu egin nahi du Aloña Mendiko eta herriko beste eskalatzaile batzuek egin duten eta egiten ari diren lana bulderrak eta rokodromoa ekipatzen.

Bai gimnasioak eta baita eskaladako gunek ere aforo mugatua dute, Covid-a dela-eta, eta erreserba sistema bidez funtzionatzen ari dira.

FITNESS GELAK



Gimnasioaren ondoan, igerileku txikiaren azpian, ekintza gidatuertarako hiru gela egokitu dira, eta hauek ere irekitzeko prest daude jada. Gela batean tatamia ipini dute zoruan. Aloña Mendiko karate sailak erabiliko du gune hau, baina kiroldegiko beste zerbitzu batzuk ere eskainiko dira bertan.

Beste bi geletako bat gaur egun modan dauden aero-fitness jarduerak egiteko prestatuta dago, eta zoru teknikoa ipini dute bietan, jauziak eta inpaktuak leuntzen dituen.

Horrenbestez, ekintza gidatuak (aerobik, zumba, pilates, fitbike...) egiteko bost gela izango ditu kiroldegiak; hiru berriak, eta kantxa urdinaren parean dauden beste biak.

SQUASHA



Kiroldegi zaharrean zeuden hiru squash-etako bi kendu egin dira, eskalada gunea handitzeko, baina gelditu den squash kantxa bakarrak arauzko neurriak ditu. Egurrezko zorua dauka eta argiteria ere berri dute.

SAUNAK ETA SOLARIUMA

Bi sauna egokitu dituzte kiroldegi berrian: hezea bata, eta lehorra bestea. Sarrerako kontrola eta erabilera arauak zehaztea besterik ez da falta. Edukiera mugekin bada ere, hauek ere erabilgarri egongo dira kiroldegia inauguratzearekin batera.



Igerilekuaren kanpoaldeko belardia ere ia prest dago, baina belarra erein berria denez, oraindik ezin da zehaztu noiz zabalduko den. Dena den, eguzkia hartzera joan nahi dutenek, igerilekuaren gainean egokitu den terrazara edo solariuma erabili ahal izango dute.

SARRERAKO KONTROLA



Kiroldegia inauguratzearekin batera, ate edo sarrera nagusia irekiko da, eta bertatik egin beharko dugu sartu-irtenak. Bi tornu edo kontrol gune daude bertan; kiroldegiko gune hezera joateko bat, eta gune lehorreko instalazioetara joateko bestea. Baterako zein besterako, bazkide txartela erabili beharko dute abonatuak, eta baita instalazioetatik irteteko ere. Covid garai hauetan ezinbestekoa da aforoak kontrolatzea eta, beraz, kiroldegian sartzeko txartela beharrezkoa izango dela gogorarazten dute kiroldegiko arduradunek.

San Martingo hariztiaren egoera aztertu eta oinezkoen bidea birgaitzeko eskatu du EAJren udal taldeak

Azterketa herriko beste parke batzuetara zabaltzea ere eskatu dute jeltzaleek

San Martingo hariztiaren egoerak okerrera egin du nabarmen azken urteotan, EAJren udal taldearen ustez. Lurzoruaren higadura seinaleak nabarmenak direla diote jeltzaleek, eta horrek arriskuan jartzen duela zuhaitzen osasuna eta baita bertatik igarotzen diren oinezkoena ere. Parkean oinezkoentzat dagoen bide bakarra oso egoera txarrean dagoela ohartarazi du EAJk, eta, ondorioz, jendea



belarretatik ibiltzen dela. "San Martin auzune berria hazi eta auto-karabanentzako gunea egokitzearekin batera, gora egin du zuhaitzian dabilen jende kopuruak, eta, ondorioz, zuhaitzen ingurua babesten duen lur emankorra higatzen ari da, zuztarrak bistan geratzeraino" azaldu du Andoni Altunak, Ingurumen batzordeko zinegotziak.

Horregatik, parkea osasun onean mantentzeko egin beharreko ekintzak identifikatzeko, hariztiaren egoerari buruzko azterlan objektiboa egitea eta oinezkoen bidea birgaitzea eskatu dio EAJren taldeak udal gobernari. Era berean, azterketa hori gainerako udal parkeen inguruan (Asentzio, Olapoto, Ugarkalde, Beletxa..) egitea eskatu dute jeltzaleek, gune natural horien osasuna bermatzeko, eta herritarrei kalitatezko espazio publiko irisgarri eta seguruak eskaintzeko.

Azterlan hau egiteko, iazko udal aurrekontuetako diru-gerakina erabiltzea proposatu du EAJk, herritarrentzako aparteko kosturik eragin barik.

EGUR-LAN
AROSZTEGIA
LIMABAR S.A.L.
BEREZAO INDUSTRIALDEA 20560 OÑATI (GIPUZKOA)
TEL. FAXA: 943 78 14 59 limabarsal@gmail.com
www.egur-lan.es

smk
san miguel kooperatiba
943 781 217
kale barria 8 - 20560 oñati
www.sanmiguel.coop

Catalana Occidente **Mikel Egaña Urrutia**
Aseguruak


Eskatu aurrekontua kompromezu gabe:

- Heriotza
- Autoak
- Bizitza
- Istripuak
- Ontziak
- Osasuna
- Exebizitza
- Aurrezkia
- Laborantza

Helbidea: Motxon 5, behea
638 16 79 84
mikel.egana@agentes.catalanaoccidente.com

PINTURAS URBIA MARGOAK
Arantzazuko Ama, 19A - 1A • 652 71 08 37 eta 943 71 62 15

www.oñati.eus webgunea berri du udalak herritarrekiko komunikazioa hobetzeko



Izaro Elorza, alkatea, eta Iker Oñati, komunikazio arduraduna

Ikusgarriagoa, dinamikoagoa eta, batez ere, erabilerrazagoa da orain udalaren webgunea. Herritarrengandik ahalik eta gertuen egoteko eta komunikazioa hobetzeko apustua egiten ari da udal gobernu taldea, eta oraingoan urrats sendoa eman du webgunea goitik behera eraberrituz. Orain arte instituzionala zen webgunea eta, askotan, ez zen erraza informazioa aurkitzea. Orain aldiz, herritarren beharretara egokitu eta egituratu dute, ahalik eta klik gutxien eginda iritsi ahal izan daitezkeen nahi duten lekura edo informaziora. Hala, udalaren ohar eta deialdiekin batera, leku nabarmena dute tramiteak on-line egiteko atalak, kirol zerbitzuen aurre-erreserba egiteko plataformak, sarrerak erosteko guneak eta agendak, besteak beste. Udal zerbitzu guztiei buruzko informazioa ere atal batean bateratu dute orain, oso modu bisualean.

'Berbia' marka pean biltzen diren udal komunikabideek ere (Oñati Irratia eta Kontzejupetik) atal propioa dute. Eguneko albiste nagusiez gain, Oñati Irratia entzuteko aukera dago bertan, zuzenean, *streaming* bidez, edo *podcast* formatuan, eta Kontzejupetik aldizkariak kontsultatzeko aukera ere bai. Udal komunikabideek ostiralero argitaratzen duten buletin digitala jasotzeko harpidetza ere bertan egin daiteke. *Codesyntax* enpresak egin ditu egokitzapen teknikoak (15.000€) udal teknikari eta zinegotziekin elkarlanean.

Udal komunikabideen atala



'BERBIA' markaren pean biltzen diren udal komunikabideek (Oñati Irratia eta Kontzejupetik aldizkaria) atal propioa dute webgune berrian. Menu nagusian dago bertara sartzeko esteka.

- **ALBISTEAK**

'BERBIA' atalean udaletzeko eta herri mailako azken albisteak aurkituko ditugu.

- **IRRATIA**

Oñati Irratia entzuteko aukera dago, zuzenean, *streaming* bidez, edo *podcast* formatuan.

- **KONTZEJUPETIK**

Kontzejupetik aldizkariak kontsultatzeko aukera dago webgunean

- **BULETIN DIGITALA**

Asteroko buletin digitala jaso nahi dutenek bertan egin dezakete harpidetza, dohainik.



Ramon Irizar kalea, 3
Tel: 943 71 61 60

✉ etxian@etxian.net
www.etxian.net  



Mota guztietako zurgintza-lanak

Garibai 11 • Telf.: 943 78 14 54 • garibai@garibai-aroztegia.com
www.garibai-aroztegia.com

Gure beharra baduzu, ondo-ondoan gaituzu.

Hain ondo zaindu nahi
zaituztegu,
**Arrasate/
Mondragonen**
bertan ere artuko zaitu
Zuatzu Klinikako
espezialista-taldeak,
hogei urtetik gorako
esperientzia duenak.

Ginekologia eta obstetrizia.
Jaio aurreko diagnostikoa.
Bularretako patologia.
Laguntza bidezko ugalketa.



Nafarroa Etorbidea, 4 (behea) . 20500 Arrasate/Mondragon
943 792 018 . www.clinicazuatzu.com

Hirigintza Planaren Aurrerakina ilusio gutxikoa eta kezkarria dela dio EAJk

Garay eta Korriuenaren aldeko apustua egiten dute jeltzaleek

Udal gobernu taldeak aurkeztu duen Hiri Antolamendurako Plan Orokorren (HAPO) Aurrerakin dokumentua "anbizio eta zorrotasun gutxikoa" da, EAJren iritziz.

Jeltzaleek adierazi dute HAPOaren Aurrerakina 2020ko abuztuaren 12an argitaratu zela, eta hiru hilabete epea ireki zela iradokizunak aurkezteko. "Guk iradokizun sorta zabala aurkeztu genuen, eta gobernu taldeak ez digu arrazoiutako erantzunik eman, eta maiatzaren 10ean egindako saio irekian ondorioztatu ahal izan genuen gure proposamenetako bat bera ere ez dutela jaso. Eta horrek kezkatu egiten gaitu, gure ustez hainbat gai oker planteatuta baitaude".

Bereziki hiru esparruren inguruan adierazi du bere kezka EAJk.

BIZITZEKO LURZORUA

Jeltzaleen ustez akats handia da datozen urteetako etxebizitzak Cegasa eta Eroski-Berezao lurzoruetan kokatzea. Lurzoru horiek leheneratu eta erabilera eta eraikigarritasun berriak ematearen aldekoa da, baina hori epe luzerako (15-20 urte) estrategia dela uste dute. "Bien bitartean, etxeak eraiki ahal izateko beste irtenbide batzuk bilatu



Etxebizitzak eraikitzeke Garayko lurzoruaren aldeko apustua egiten du EAJk, eta Korriuenaren egokia iruditzen zaio futbol zelaia eraikitzeke

behar dira. Bestela non biziko dira independizatu nahi duten gazteak? Kasablanka, Kurtzekua eta San Martin badira alternatiba bakarrak, astakeria bat ordaindu beharko dute. Etxebizitza hutsen okupazioa aitzaki bezala erabiltzeak ez du balio" EAJren ustez.

Gainera, Eroski-Berezao gunean 190 etxebizitza eraiki ahal izatea sinesgaitza da jeltzaleen ustez. "Natra-ren eremuan ezin da etxeak egitea proposatu, zaratak direla eta". Ildo horretan, Garayko lurzoruaren apustu irmoa egiten du EAJk. "Aukera eta hobekuntza handiak ekar

ditzake Oñatiko hiri-egiturari; San Lorentzo eta Errekalde arteko tunela (puntu beltza) kendu eta dentsitate ertaineko bizitegi garapena (babes ofizialeko etxebizitza eskaintza zabalarekin %75) eta ekipamenduekin (Musika Eskola berria...) garatzeko aukera emango luke".

KIROL EKIPAMENDUAK

Futbol zelaiaren behin betiko kokalekuaren gaia ez da behar bezala aztertu eta eztabaidatu EAJren ustez, eta beraien ustez ez litzateke Korriuenaren baztertu behar aukera bezala.

Bestalde, HAPOaren Aurrerakin dokumentua herritarrei azaldu eta ulermena errazteko orduan udal gobernuaren aldetik "ahantzura larria" egon dela uste du EAJk. "Zer pasatzen da orain herritarrek iradokizunak egin nahi badituzte, ez zaielako gustatu maiatzaren 10eko saioan azaldu zaiena?". Jeltzaleek kritikatu dute Aurrerakina azaltzeko saio publiko bat bera ere egin gabe amaitu zela iradokizunak aurkezteko epea, eta, beraz, epe berri bat irekitzea eskatu dute.

EZER ERABAKI GABE

Maiatzeko osoko bilkuran egin zuen goian aipatutako eskaera EAJren udal taldeak. Udal gobernuaren izenean Izaro Elorza alkateak erantzun zuen, HAPOa berritzeko prozesuan orain arte eman diren urratsak gogoratu. "Diagnostiko fasea parte hartzailea izan zen; hainbat saio ireki egin ziren, eta saio horietan herritarrek egindako eta bozkaturako proposamenekin eta Aholku Kontseiluak emandakoekin osatu da Aurrerakina. Dokumentu hau jendeagirian egon da udalaren webgunean, eta interesa eduki duenak egin ditu iradokizunak (guztira 16 jaso dira)".

Alkateak gogorarazi zuen oraindik ez dagoela ezer erabakita, eta hurrengo Hirigintza batzordean aztertuko direla banan bana jasotako iradokizun guztiak, baita EAJk aurkeztutakoak ere, eta bertan landuko dela plenora eramango den dokumentua. ■



garmendia tejas

Basozabal Industriadea 5 · N-1, km 417

20212 Olaberría (Gipuzkoa)

T. 943 161 032

www.garmendiatejas.com




Aktu egiten
diagu 100



Kalitate garrantzitsua
erakusten



Datuak
erabiltzen



Elkar Heziko HAUR ESKOLAN, lehen urratsetatik elkarrekin

Inguru segurua, lasaia eta goxoa

Egokitzealdi PERTSONALIZATUA haurren
eritmoa errespetatuz

Haurren garapena estimulatzeko MATERIAL eta
ekintzak, esperimendazio gela,
ESTIMULAZIO GOIZTIARRA

Ordutegi zabala (07.30-19:00) eta MALGUA

Bertan prestatutako janaria
Jardunaldiko gora-beheren komunikazioa egunero
Arropa garbiketa

EKAINEAN ZEHAR

Bisita pertsonalizatuak/ Eguneroko martxa ezagutzeko aukera

idazkaritza@elkarhezi.eus / 943 71 82 72 ☎ 688 621 195 / www.elkarhezi.eus



MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA S.COOP

» Oñati gestio heziketa

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

2021-2022

IZEN-EMATEA
Maiatzak 31tik ekainaren 18ra

Eskaintza akademikoa

OÑATI GESTIO HEZIKETA	MGEP
<ul style="list-style-type: none">•Administrazioa eta Finantzak•Zuzendaritza Idazkaritza•Salmenta Kudeaketa	<ul style="list-style-type: none">•Mekatronika Industriala•Automatizazioa eta Robotika Industriala•Fabrikazio mekanikoko Produkzioaren Programazioa•Fabrikazio Mekanikoko Diseinua•Sareko Informatika Sistemen Administrazioa

www.mondragon.edu/ogh
943 71 80 09
rigarza@mondragon.edu

www.mondragon.edu/gmh
664 298 704 • 664 298 683
orientazio.lhm@mondragon.edu



Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariko erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorlerraren izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

Bidaurreta Dorrea z/g
20560 OÑATI
Tel.: 943 78 20 72
kontzejupetik@onati.eus



Oñatiko Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

KONTZEJUPETIK

Argitaratzailea:

Oñatiko Udala

Zuzendaria:

Iñigo Arregi

Publizitatea:

Aratz Losada

Diseinua eta Maketazioa:

Aratz Losada

Kolaboratzaileak:

Jerardo Elortza eta Euskaltegia

Inprimategia:

Gertu

Tirada:

5.500 ale

Lege gordailua:

SS-357/91

Posta-e:

kontzejupetik@onati.eus

Publizitatea:

publi@onati.eus

Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa
20560 Oñati (Gipuzkoa)
Tel.: 943 78 20 72

Eskerrik asko Irazan!!

Argiloain Perosterena

2015.eko eguerdi baten 11 urteko semea etxera etorri eta zera esan zidan: “ama, antzerki talde bat sortu bihar da eta apuntatu in bihar naiz, bale?”

Joan zen bilerara, eta beste egun baten gurasoak bildu gintuzten: **Nerea, Maider, Itziar** eta **Josu** ziren han. Beraien ideia azaldu eta aurrera egin zuten. Oñatin ez zegoen horrelako ezer eta oso interesgarria iruditu zitzaigun, gure seme-alabendako aukera aparta gustoko zuten arlo hortan murgiltzeko. Hor sortu zen **IRAZAN** taldea.

Ordutik proiektu asko egin dituzte: pailazoan ikuskizuna; Txantxakale; hainbat ikastaro; Eneko Sagarduirekin solasaldi atsalde bat; Pirritx, Porrotxekin agerraldi bat; Ikusi Makusi talderarekin elkarlana, Mogambo kabareta,... Denak zein baño zein politagoak eta ikusgarriagoak !!

Azken hau egin ondoren taldeko nagusitxoenei, beraien kabuz, beste talde bat sortzeko proposamena luzatu zieten eta hauek onartu. Gutxi ziren baña lagun artean ideia zabaldu eta talde polit bat sortu zen: XUP.

XUP: Ideiak botatzen hasi, astean behin elkartu eta poliki-poliki “Kontraizanak” sortzen

joan zen (2019). Eta azkena “Beita”, duela egun gutxi taularatua

Bi hauetan 14-18 urte bitarteko neska-mutilen bizipenei buruz aritu dira, zalantzak, kezkek, beldurrak, esperientziak... lehen umorez beterikoa eta bigarrena seriotasunetik landua, biak beraiek bezelako nerabeei zuzendutako antzezlan sakon-sakonak. Santa Ana aretoa lepo betetzea lortu dute eta denok liluratuta, harrituta, negarrez, gure barrenean sentimendu desberdin pilo bat nahasten zirela atera giñen. Herriko gazte talde batek horrelako proiektuak aurrera eramateko gai izatea, beraiek izan direlarik zuzendari, gidoilari, aktore, dekoratzaile,... eta ikuslearengan horrelako sentimenduak eragitea, benetan TXALOTZEKOA.

Guzti honengatik eskerrak ematea besterik ez zait gelditzen, **ESKERRIK ASKO** Nerea, Maider, Itziar eta Josu guzti hau martxan jartzeagatik eta eskerrik asko XUP eman diguzuen irakaspenagatik.

Segi horrela !!!



Urmaelaren egoera penagarria

Lehenago ere jaso izan ditugu Olakuako urmaelaren egoera penagarria salatzen zuten idatziak. Eta berriz ere jaso dugu auzotar baten bisita. Orain dela urte batzuetako eta gaur egungo argazki bana ekarri dizkigu, aldea ikusteko eta, dagokionari, neurriak har ditzan eskatzeko, bere egunean izan zuen edertasuna berreskuratu dezan ahateen urmaelak.


 **Mekalki**
S. Coop. mekanizatuak

Mekanizazio zerbitzu integralak

Tel.: 943 78 19 11 | www.mekalki.es



Pentsio duinak aldarri

 Hiru urte luze dira jada pentsio publiko duinen alde mobilizatzen hasi zirela hango eta hemengo pentsiodunak. Eta ez dute etsitzeko asmorik. Joan den asteburuan manifestazio jendetsuak egin ziren hiriburuetan, eta aurreko astean Gipuzkoa zeharkatu zuen bizikleta martxa ere bai. Oñatik igaro zen unea duzue argazkian.

JOSE FELIX DIAZ
 DE TUESTA

OROITZAPENENKO SEILUA

Oñatiko CECA Filatelia eta Numismatika elkarteak **Agustin Zarketa Eluategi** (1921-2004) zena gogoratzeko seilua atera du haren jaiotzaren mendeurrenean. Udal txistulari taldeko kide izan zen Zarketa hainbat urtez, eta herri mailako txistu akademia ere sortu zuen 1970eko hamarkadan, Higinio Iriarterekin batera. Txistulari gisa gogoratzen dugun arren, danborra jotzen hasi zen Zarketa, gerora saxofoia ere jo izan zuen musika bandan, eta Parrokiako koruko partaide ere izan zen.



Maiatzean bete da baita ere **José Domingo Milicua Illarramendi** (Oñati, 1921 - Bartzelona, 2013) zenaren jaiotzaren mendeurrena. Itzal handiko gizona izan zen artearen historialari gisa. Kale Zaharrea sortua, Florencio

Milicua antikuari eta erlojugilearen semea, Bartzelonan eta Italian osatu zituen ikasketak, eta XX. gizaldiko arte-historialari handiena izan zen Roberto Longhiren ikasle eta laguntzailea izan zen. Caravaggioren artelanetan aditua, Arte Ederretako unibertsitate ezberdinetan aritu zen irakasle, eta Prado museoeko patronatuko kide-ahokulari preziatua, eta halaxe aitortu zion Madrilgo museoak 2008an eskainitako omenaldiarekin.

OHAR ETA DEIALDIAK

- **KORPUSEKO MEZA NAGUSIRAKO TXARTELAK**
Igandean (ekainak 6) Mikel Goiaingeruaren parrokiari ospatuko den meza nagusirako sarrera-gonbidapenak Txokolateixan (10:30-13:00 eta 17:00-19:00) eskuratu ahal izango dira ekainaren 2tik aurrera. Pertsonako bi gonbidapen, gehienez. Edukiera mugatua.
- **KORPUSETAKO DANTZA ERAKUSTALDIA**
Korpusetako dantzen erakustaldia eskainiko du Oñatz dantza taldeak igandean (ekainak 6), plazako pilotalekuan, 18:15etan (eguraldi txarra eginez gero, kiroldegian). Saio horretarako sarrera-gonbidapenak Txokolateixan, www.oñati.eus webgunean eta plazako leihatila digitalean daude eskuragarri.

Gezalaga
Margoak

Tel. 616 277 999 - 616 388 396 | gezalagamargoak@hotmail.com





Aranguren eta Arrazola, ezkerrean, Elorza alkatea eta Ruiz de Apodaka berdintasun teknikariarekin

Zaintza lanetan jardun duten eta diharduten emakumeen genealogia

Selma Huxley bekari esker egindako ikerketa lana liburu batean jaso dute Jone Arrazolak eta Miren Arangurenak

Oñatiko emakumeek historian zehar herriari egindako ekarpenak plazaratzeko helburuarekin ematen du udalak *Selma Huxley Barkham* ikerketa beka. Iaz, Jone Arrazola eta Miren Aranguren izan ziren II. Selma Huxley bekaren irabazleak, eta urtebeteko lanaren ondoren, beraien ikerketaren emaitza jasotzen duen liburua aurkeztu dute.

1950etik gaur arte, modu batera edo bestera zaintza lanetan jardun duten emakumeen genealogia osatu dute, hauetako batzuekin egindako elkarriketa sakonetan oinarrituta. Zaintzaile lanetan jardun duten emakumeekiko aitortza ariketa

bat da lana, baina berrikuspen bat ere izan nahi du, zaintzara dedikatzearen hazkurak, kontraesanak eta minak ere azaleratzen baititu. "Menpekotasuna unibertsala da eta zaintzak, horrenbestez, derrigorrezkoak. Baina hartu-eman hori ez da orekatua izan generoari, klaseari eta arrazari dagokionean; etxeko lan-banaketak ez dira parekideak eta, beraz, bidegabea izan da, eta da, oraindik orain, emakume askoren patua. Beraz, balio beza lan honek joandakoen aitortza eta bizi direnen erreparazioarako bezain beste, etorriko direnen bizitza bizigarriak eraikitzeko" adierazi dute ikerketa lanaren egileek.

» IKERKETA LANAREN HEDAPENA EGITEKO SAIOAK



Ekainaren 9an aurkeztuko dute liburua jendaurrean (kultur etxean, 11:00etan eta 18:00etan), eta, gainera, liburuan jorratzen diren zenbait gai herritarrekin batera aztertu eta gogoeta egiteko hiru saio ireki antolatu dituzte:

- **EKAINAK 15:** 'Amatasunak: tradizioa eta askatasuna sokatiran' (euskaraz).
- **EKAINAK 22:** 'Zaharrak berri: Oñatiko etxeko langileen auzia' (gaztelaniaz).
- **EKAINAK 29:** 'Hartu eta eman: zaintza lanen demokratizazioarentz' (euskaraz).

Kultur etxeko erakusketa gelan izango dira (17:00-19:00). Saio horietan eskuratu ahal izango da liburua, eta udalaren webgunean ere eskuratu ahal izango da PDF formatuan.

DEIALDIA

Selma Huxley ikerketa beka

Historian zehar Oñatiko emakumeek egindako ekarpena aitortzea helburu duen **III. Selma Huxley Barkham** beka (17.400 €) emateko deialdia egin du udalak. Ekainaren 28ra arteko epea dago proposamenak aurkezteko. Informazioa eta oinarriak www.oñati.eus atarian

Elkartasun adierazpenak

Palestina eta Kolonbiari elkartasuna adierazteko mozio bana aurkeztu zituen EH Bilduk maiatzeko osoko bilkuran. Kolonbiakoa aho batez onartu zen, eta Palestinari buruzkoan EAJ abstenitu egin zen eta testu osagarria aurkeztu zuen. EH Bilduk azken honen aurka bozkatu zuen, Palestina eta Israel parean jartzen zituela argudiatuta.

Bestetik, Izaro Elorza alkateak babesa adierazi zion Azpeitiko alkateari, "une honetan jasaten ari den presio eta eraso denengatik, bere lana zintzo egiteagatik eta herriaren alde egiteagatik".

Batxilergo Duala ikasteko matrikula epea zabalik

Gure Batxilergoarekin batera Amerikako Estatu Batuetako *High School*-eko diploma lortzeko aukera ematen duen Batxilergo Duala ikasteko aukera eskaintzen die Elkar Hezi ikastetxeak DBH-2 bukatzen ari diren ikasleei. Online ikasten dira sistema estatubatuarri dagozkion ikasgaiak. Ekaina amaiera arte dago zabalik matrikula epea Elkar Hezin.

ERREUSAK PROIEKTUA



Aurreko zenbakian aurkeztu genuen orriotan ERREUSAK egitasmoa. Industriaurreko gizartearen erakusle diren tresna eta objektuak katalogatu eta bizimodu haren lekuko izan ziren herritarren testigantzak jaso nahi dituen proiektua da. Horretarako, herriko 80 bat baserri bisitatu nahi dituzte, uztaila edo abuztuko aste batean, goizez. Lan horretan laguntzeko, bolondres talde bat osatu nahi dute. Edozein herritarrek (18 urtetik gorakoak) egiteko moduko lana da. Beraz, laguntzeko prest bazaude, eman izena **ekainaren 13a** baino lehen erreusak@gmail.com helbidean.

Adreilu molde bikotza



Erreusak egitasmoaren baitan katalogatutako objektuetako bat duzue ezkerreko argazkian. Elkarri lotutako oholez osatutako pieza da, buztinezko eta neurriko adreiluak egiteko erabiltzen zena. 1500 eta 1930 artean erabili izan zituzten halakoak teilaginek.

• BOLONDRESA •

"Aukera oso polita da baserri munduari buruz zerbait ikasteko"

Oneka Anduaga Erreusak proiektuan laguntzeko izena eman duen bolondresetako bat da. "Aukera polita



iruditu zait baserri munduari buruz pittin bat ikasteko. Aitzaki moduko bat, Oñatiko baserri mundura hurbiltzeko. Astebeteko lana izango da, goizez egitekoa, baina denbora tarte luzea dago (uztaila eta abuztua) horretarako eta ez zait aparteko lotura edo konpromisoa iruditzen. Beraz, animatzen dut jendea izena ematera. Gainera, kuadrillan edo taldetxotan egiteko aukera dago eta esperientzia polita izan daiteke".

Izan jasangarri

#Izanjasangarri

Eguneroko bizitzan, ohitura aldaketa txikiek, gure bizitzetan aldaketa nabarmenik suposatzen ez badute ere, ingurumenean epe ertain eta luzean, aldaketa positiboak dakartzate

✉
kontsumojasangarriaonati@tutanota.com

Kontsumo jasangarri taldea

Hileko proposamenak Ekaina



Kontsumo jasangarria gauzatzeko ekintza bat:

Zure etxeko kontsumo energetikoari dagokionez, zenbat aparato dituzu stand-by aukeran? Telebista, ordenagailua, DVD erreproduktorea, bideo-kontsolak, hortzetako zepiloa...zenbat energia kontsumitzen duten kalkulatu duzu?

<https://www.consumer.es/medio-ambiente/vampiros-electricos-en-los-hogares-como-combatirlos.html>



Kultura jasangarriaren txokoa:

Zergatik egiten du distira eguzkiak? (Katy Daines. Edit. Ttartalo). Etxeko txikienekin energiaren inguruko gaiak jorratzen hasteko ipuin aproposa eta polita.



Kontsumo jasangarriari buruzko datua:

1900 eta 2000 urteen bitartean, munduko energiaren kontsumoa 15 aldiz bidertu da.

<https://www2.uned.es/biblioteca/energiarenovable3/ usos.htm#necesidades>



Ekimen jasangarri bat:

Txanpu solidoa indarrean dago berriro. Txanpu likido batek duen talka asko murrizten du: esaterako, ez da formulazioaren ura garraiatzeko behar den energia kontsumitzen. Zenbat energia ezkututzen da zure eguneroko erosketetan?

Distantzia luzeko Espainiako triatloi txapelketako top-ten barruan

Mikel Ugarte 8. sailkatu zen bere aurreneko Ironmanean

Maiatzaren 16an, distantzia erdiko Aranjuezeko triatloia irabazi zuen

Joan den igandean (maiatzak 30) jokatu zen Platja d'Aro-n (Katalunia) distantzia luzeko Espainiako triatloi txapelketa, eta Mikel Ugarte Ramos oñatiarra zortzigarren sailkatu zen (nazioarteko partaideak kontuan hartuta 12. postuan helmugaratu zen) 9:07:27-ko denborarekin.

Bere debuta izan zen Ironman distantzian (3,8 kilometro igerian, 180 km. bizikletan, eta maratonia korrika), eta bere burua pittin bat aurreraxeago ibiltzeko gai ikusi bazuen ere, balorazioa positiboa da eta pozik dago egindako lanarekin eta bizi izandako esperientziarekin, distantzia honetan aurreneko esperientzia zela kontuan hartuz.

Igeriketako partziala 53:53an osatu zuen triatleta oñatiarrak. Gustura, baina arantza edo penatxo batekin, hala ere. "Hirugarren taldetxo batean egin nuen igeriketako proba. Pena daukat, aurreko taldetxoa ere metro gutxira izan nuelako hasieran, eta, normalean, sartzan bazara gero errazagoa da eustea, baina ezin izan nintzen sartu". Lehenengoarengandik 4 minutura atera zen uretatik.



Ugarte, bere lehen Ironmaneko korrikako sektorean.

Lehen trantsizioa 3:47an eginda, bizikleta hartu eta "gasa irekitzea" erabaki zuen. "Indartsu sentitzen nintzen eta, poliki poliki, jendea aurreratzen hasi nintzen. Gora etorrita nengoan. Gehiegi-txo. Banekien hori ez nuela egin behar, baina momentuko inpultsoa, badakizu". Ibilbideko zenbait momentutan, atzetik taldetxo bat zetorrela ikusten zuen (triatloian babesean joatea debekatuta dagoen arren), baina aurrera jotzea erabaki zuen, eta 100. kilometroan Eneko Llanos harrrapatu eta atzean utzi zuen. "Nire lehenengo 'novatada' izan zen. Llanos bezalako esperientziadun triatleta bat izanik, hobe izango zen haren eritmoari eustea, baina aurrera jo nuen, eta azken kilometroetan zegoen mendatean ordaindu nuen, atzetik iritsi zen taldetxoari eutsi ezinik". Bizikletako ibilbidea oso gogorra zen, 2.400m.-ko desnibelarekin.

Korrikako saioan bigarren akatsa egin zuela aitortu digu Mikelek. "Bigarren trantsizioa 2:21ean egin ostean, Eneko Llanos eta belgikar batekin batera abiatu nintzen

ZURICH

M^a del Mar Urrutia Negueruela

Motxon Kalea 5 behea
Tel./Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20

HARALD LINDER

ETXEETAN ERA GUZTIETAKO KONPONKETAK
PERSIANAK, LEHIOAK, LUR FLOTANTEAK, ARGIAK, PINTURA LANAK...



DISEINATZAILE ETA MONTATZAILEA

SUKALDEAK, KOMUNAK eta ASKOZ GEHIAGO

OLAKUA 12 B 4 ezk. - 20560 ONATI - GIPUZKOA

695 78 91 04 - 943 04 47 77

maratoia egitera. Belgikarra ondo zihoan, eta 3. km-an aurrera egin genuen biok, Llanos atzean utzita; 10km.-tan 45 segundo atera genizkion, baina orduan hasi nintzen gorriak ikusten. Tripetako minekin hasi nintzen, hustutzera geratu behar izan nuen, eta hortik aurrera gora-behera asko izan nituen; momentuka oso ondo nindoan, eta handik gutxira ezinean, erritmoari eutsi ezinda". Hiru ordutik behera (2:58:55) amaitu zuen maratoia, baina 2:50ean egiteko moduan zegoela uste du Mikelek, "buru gehiagorekin jokatu izan banu".

Pozik dago, hala ere, egindako lanarekin, "batez ere aurpegia eman nuelako eta ausardia puntu bat erakutsi nuelako, eta nire lehenengo ironmana amaitu nuelako. Bero dezente egiten zuen, jende asko erretiratu zen, eta nik eusten jakin nuen gaizki nindoan momentutan. Pozik nago borroka egin nuelako, bai besteen kontra, eta bai nire buruaren kontra ere". Estrategiari kasu gehiago egin izan balio, aurreraxeago egon zitekeela; horixe daukan pena bakarra.

Baina, oro har, disfrutatuta egin zuen Mikelek, baita une txarretan ere, eta, dagoeneko, iraila edo urria aldera beste ironman bat egiteko asmoa duela aurreratu digu. Bien bitartean, distantzia erdiko triatlaien Espainiako Kopako bizpahiru proba puntuagarri egingo ditu. Azkena, maiatzaren 16an Aranjuezen (Madril) jokatu zena, berak irabazi zuen.

Euskadikoa irabazita orain Espainiakoa helburu



ESKUBALOIA Maiatzaren 14tik 16ra Orion jokaturako Euskadiko txapelketako lauko finalean nagusitu zen Cartonajes Arregi-Aloña Mendi kadete mailako taldea, eta orain Espainiako txapelketako sailkapen fasean parte hartuko du Andrea Garciak eta Mikel Agirrek zuzentzen duten taldeak. Vigon (Pontevedra) jokatu da, ekainaren 3tik 6ra, eta Gráficas Lassa Carballal (Galiziazko irabazlea), Hiper Hierros BM Nava (Gaztela Leongo bigarrena) eta C. D. Vallecás (Madrilgo hirugarrena) izango dituzte aurkari. Irabazlea bakarrik sailkatuko da Espainia mailako azken fasera.

Denboraldiko bigarrena Casaisentzat

TXIRRINDULARITZA Denboraldiko bigarren garaipena lortu zuen AMPO taldean ari den Danel Casaisek maiatzaren 23an jokatu zen Anoetako sarian, jubenil mailan. Hamabi laguneko ihesaldian sartu eta azakarrena izan zen oñatiarra. Bestalde, joan den asteburuan, Gipuzkoako taldekako erlojupeko txapelketa ere irabazi zuen Casaisen AMPO-Inkolan taldeak.



Martin Early

EROSTARBE PODIUMEAN ULMA-Aloña Mendi taldeko Aimar Erostarbek denboraldiko lehen podiuma lortu zuen maiatzaren 15ean jokaturako Segurako sarian. Bigarren helmugaratu zen gazte mailako txirrindulari oñatiarra.

Mikel Ruiz, Euskadiko azpitxapeldun

ATLETISMOA Mikel Ruiz, Aloña Mendiko korrikalaria, bigarren sailkatu zen maiatzaren 15ean Durangon jokatu zen aire llibreko Euskadiko txapelketan, 5.000 metroko proban, Master 40 kategorian, 16:34 denborarekin.



Miren Josune Bikuña Espainiako txapeldun taldeka

DUATLOIA Miren Josune Bikuña oñatiarraren Sestao Triatloi Taldeak Espainiako 2. mailako duatloi txapelketa irabazi du. Horrenbestez, mailari eusteko behar zituen puntuak lortu ditu talde bizkaitarrak.

Aimar Lizarra, bigarren Madrileko Iron Bike proban

MENDI BIZIKLETA Ihesaldian sartu eta uneoro aurrean ibili ostean, bigarren postuan amaitu zuen 116 km.-ko (2200 m+) lasterketa.

oñabike

oñabike.com

Otadui 25, Oñati · Tel.: 943 78 05 65

BIZIKLETAK · PATINETEAK · KIROL ARROPAK

EUSKAL HERRIA ZEHARKATUZ
MENDIA ETA MUSIKA BATUZ**URMUGA**

19 etapatan Euskal Herria mendebaldetik ekialdera zeharkatuko duen ibilaldia egingo da aurten ere **uztailaren 13tik 31ra**



Iaz izan zuen harrera bikaina ikusita, aurten berriro antolatu dute URMUGA ibilaldia, 19 egunetan Euskal Herria zeharkatzen duen esperientzia zoragarria, zazpi herrialdeak josten dituen ertzari jarraituz, Garobel menditik Hiru Erregeen Mahaiaraino. Iaz bezala, aurten ere hainbat kontzertu egingo dira ibilaldian zehar, formatu handiko sei eta formatu txikiko beste sei, ibilbideko leku esanguratsuetan betiere. Informazioa eta izen-ematea: <https://urmuga.eus>.

» Nola parte hartu

Edozein mendizalek izango du aukera URMUGA-n parte hartzeko. Zeharkaldia bere osotasunean egin daiteke, edo, bestela, astebeteko edo asteburuetakoko etapak egiteko aukera ere badago.

Uneoro mendi gidari batek zainduko du mendizaleen ibilia. Mendizale bakoitzak egunerako behar dituen arropa eta elikagaiak soilik eraman behar ditu; gainerako ekipajea antolakuntzak eramango du aterpetik aterpera.

» Kontzertuak

Hamabi kontzertu egingo dira ibilaldian zehar, (sei formatu handikoak, eta sei txikikoak) gailur, herri edo leku esanguratsuetan betiere.

Et *Incarnatus* orkestrako musikariak oinarrian direla, Euskal Herriko eta atzerriko musikari eta kantari ezagunek parte hartuko dute, hala nola: Dupla, Gorka eta Nerea Urbizu, Alex Sardui, Olatz Salvador, Nogen, Anari, Chill mafia, Niko Etxart, Juantxo Arakama 'Glaukoma', eta Idoia Asurmendi.

Aurten ahalegin berezia egin dute musikari gazteak gonbidatzen, talentu gaztea sustatu eta, bide batez, gazte jendea erakartzeko asmoz.

Egitaraua guztiz zehaztu barik dago oraindik, baina kontzertu horietako bat Urbian izango da eta beste bat Oñatin, uztailaren 18an.

Edozein mendizale eta musikazale joan daiteke kontzertuak entzutera. Errespetua da baldintza bakarra; musikarekiko eta mendiarekiko, norik bere hondakinak behera jaitsiz.

» Pago zaharra

Urmuga zaindu dezagun egitasmoa martxan jarriko dute aurten antolatzaileek. Natura zaintzearen garrantzia ohartaraztea da helburua, eta, ikur bezala, aurten Aramaioko pago zahar bat (250 bat urte dituen) hartuko dute, horrelako zuhaitzak babesteko elkarlana sustatuz herriko udalarekin batera.

» Gazteentzako ikastaroa

Urmuga egitasmoaren baitan 14-18 urte arteko gazteei zuzendutako ikastaroa antolatu da aurten. Norberaren eta aterpe librean zaintzari, elikadurari, orientazioari eta segurtasunari buruzko eduki teorikoak azalduko dizkiete gazteei bi mendi gidarik. Aste bakoitzeko txanda bat (14 lagun gehienez) osatuko da.



FELIPE URIARTE

Urmugako antolatzailea

» Ez da bidaia fisiko bat soilik; barne bidaia ere bada. Zaituta bizi garen herri honetatik, osorik eta elkarturik bizi izan zen herri batera, eta etorkizunean ere berriz elkartuko den herri horretara bidaia bat da

» Mendizale eta musika zale guztiak daude gonbidatuta Urmugan parte hartzera


TABERNA • JATETXEA
Bidebarrieta 6
Tel.: 943 71 62 96
20560 OÑATI

FAGOR
INDUSTRIA TALDE KOOPERATIBOA





Zuendako txaloak

Txaloka agiri dira argazkian XUP antzerki taldeko gazteak, baina beraiek merezi dute txalo zaparrada beroa egindako lanagatik. Maiatzaren 21-22an aurkeztu zuten *Beita* antzezlanana, Santa Ana antzokia hiru emanalditan bete zuten ikusleengan zirrara eraginez. Beraiek sortu, prestatu eta zuzendu duten antzezlanana izan dela kontuan hartuz, txapela kentzea besterik ez zaigu geratzen. Iaz ('Kontraizanak'), umoretik jo zuten, eta aurten gai serioagoak ere (sexu erasoak, nerabeen arteko harremanak, kezkak, beldurrak, konfiantza...) maisuki lantzen dakitela erakutsi dute, eta den-dena euskara txukun eta jatorrean gainera. Zorionak!

'Itzaletik argira' bere lehen diskoa kaleratu du Iban Yanizek



Aranburu Margoak dendan, Elkar dendetan eta plataforma digitaletan eskura daiteke diskoa

"Sekula ez da berandu", egileak berak dioenez, eta musikaren munduan berria ez bada ere, 50 urte betetzear kaleratu du Iban Yanizek bere aurreneko diskoa.

90. hamarkadan hasi zen lehen urratsak ematen musikaren alorrean, herriko hainbat talderen itzalean. Bertsio-talde efimeroetan hainbat aldiz parte hartu ondoren, rock klasikoaren eta blues-aren esparruan betiere, Donostia hiriko maketa lehiaketan finalista izatera iritsi zen 'Black cat bone' izenarekin.

Musikari, instrumentista, luthier eta soinu teknikari formakuntza luze eta etengabe baten ostean, ordenagailuko disko gogorra abesti zirriborroz beteta zuela ikusita, hautaketa egin eta argira ateratzea erabaki du. Hortik 'Itzaletik argira' diskoaren izena, eta azaleko irudiaren zergatia.

Americana rock, indie eta folk alternatibo estiloko hamar kanta bildu ditu diskoan. Erdi tempoak eta musika tresna akustikoak (kitarra, dobroa eta mandolina) dira nagusi, soinu elektrikoak alde batera utzi barik. Hitzak ere berak sortutakoak dira guztiak (Joseba Sarrionaindiaren poema batean oinarrituta



Etxeko estudioan autoekoiztutako diskoa da

dago 'Maite ditut') eta bere esperientzia, nahi, sentimendu eta frustrazioen inguruan hitz egiten du.

Autoekoiztutako diskoa da, azken hiru urteetan zehar bere etxeko estudioan grabatutakoa, lanketa lasaian. 'Samina' kantuaren bideoklipa ere egin du (Youtuben *-iban yaniz-* dago ikusgai).

Oso gustura dago emaitzarekin, eta jaso dituen feedback eta adituen kritikekin. Autosatisfakzioa beste pretentsiorik ez omen du diskoarekin, baina egoera hobetzen denean zuzenean defendatzea gustatuko litzaiokeela ere aitortu digu.

Oñatn, Aranburu Margoak dendan, eta Elkar dendetan eskura daiteke diskoa CD formatuan (10€), eta plataforma digital nagusietan formatu digitaletan.



Barrutik

Kulero eta barruko kamisetak jantzi ditut, lehendabizi, ondoren galtzerdiak jantzeko. Guztiak ere zuriak dira. Bezperatik nituen gertu, besaulki osteko armairuaren bigarren kajoiaren hondotik koloredun guztiei aurre egin eta kanporantz hurreratuta. Ispilua ezkerraldean daukat begira-begira, zerbait esateko gogoia balu bezala. Logelatik irten eta banoa egongelara. Bertan dauzkut, txukun-txukun esegita, atzo iluntzean plantxatu nituen alkandora eta galtzak. Badaezpada gainbegiratu dut atzo plantxarekin ondo erreparasatu nuen galtzaren erdiko marrak bertan jarraitzen ote duen. Iratxorik ez da ibili gauean. Eskerrak.

«Lehendabizi alkandora jantziko dinat», esan diot nire buruari; izan ere, ondoren galtzak gain hartuko diote atorrari. Kontrako aldera egin nuen azken aldian, eta plazaratu orduko nituen ximurrak begi-bistan. Azkenik gerrikoa lotu dut, dantzan hasitakoan ezer bere tokitik atera ez dadin; badakidan arren jantzi zuri ederrak egunaren amaieran ez direla egongo orain bezala.

Logelara itzuli naiz orduan, galtzerdi fin eta labainkorren gainean, ezker eskumuturreko botoia lotzen dudana bitartean. Logelara iritsi orduko, baina, ohartu naiz alper lanean ari naizela: «zintak jartzeko askatu behar ditun-eta!» Ispiluak onarpen keinu bat egin dit oraingoan, eta leihotik datorren goizeko eguzki printzak adorea eman dit. Banoa, hortaz, taldekideengana.

Gertu daude, egurrezko kaxa dotorean, gona, zinta, gorbata, txapel eta bandak. Ni baino urduriago dagoen dantzari bati gona jantzen hasi naiz. Badakit urduriago dagoela; izan ere, ez dauka gogoan ezkerreko edo eskuineko ilaran joango den. Esan diot gonako sokaren korapiloa ezkerraldean komeni zaiola, alde horretako ilaran joango da-eta. Zintzilik geratu zaion soka zatia sartu du galtzen barruan, eta gorbata eta bandaren korapiloa egin dizkiot. Bandaren korapiloa normalean baino hobeto atera zait: «itxura ona hartzen ari dun eguna» esan dut nire kolkorako.

Arnasa estutu zait lehendabizikoz, gorbataren korapiloa ia-ia eztairitik sartzean: «lasai, neska, ohitura falta bakarrik dun!» Gurutze itxura hartu dut ondoren, beso eta eskumuturreko zintak jartzeko. Bederatzi dantzariok jantzita gaudela hartu ditugu kastañuelak. Jantzen lagundu nauen kidearengana itzuli naiz, kastañuelaren sokek nire eskuaren tamaina har dezaten. Eman didan estutuarekin jarri zaizkit atzamarrak bata bestearen gainean. Hala ere, gurago dut: gogor lotuta ez didate ihes egingo.

Gerriko eta atzamarretako estutuak aldean hartuta atera naiz plazara. Orain dudana estuasuna, baina, ez da fisikoa. Gogoan ditut entseguetan pasatako hanketako minak, hanka azpiko gogortasunak, sorbaldetan mailuaren indarrez sartzen zitzaizkidan iltzeak, eta banakoa egitean atera zitzaizkidan belauetako beltzuneak. Estuasun hau deskriba ezina iruditzen zait. Badu urduritasunetik, badu, baita ere, ilusiotik eta, zelan ez, badu emoziotik.

Burutazioen eta dantzaren errepaso mentalen hegaldiak lur hartu du, eta entzun dut plazako zurrumurrua. Aurreko eta aldame-neko dantzariak non diren begiratu dut: «lasai, neska, hire tokian hago-eta.» Orain arte balio izan didan arren, oraingo honetan ez naiz lasaitu; aitzitik, gorbataren, gerrikoaren eta kastañuelaren sokaren estutuen ondorioz, bihotz barrunbeetako bi hotsak gero eta azkarrago entzuten ditut. Eta errezeloa daukat, metro bira begira dudana bost urteko neskatilak ere entzuten dizkidala.

Halako batean entzun dudana da lehenengo txistuaren sol nota. Plaza osoa isildu da, supituki. Bizkarrezurrean gora dator sentrazio deskribaezin bat.

Gora Oñatz!

Iñigo Murgiondo Agirre
Oñatz Dantza taldeko komunikazio taldea



 ARRIZABALAGA Aroztegia	 PAKITA Altzariak
Berezao Ind. 10 Tel. 943 78 14 64	Sta. Marina, 6 Tel. 943 78 02 21
SUKALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTIKOAK • NEURRIRA ENPOTRATURIKO ALTZARIAK	

IRAZOLA

Okindegia

Ostiral, asteburu
eta jai egunetan
baserrniko agia,
egurrezko labean egina

Larraña auzoa, 44 • Tel.: 943 78 25 97 • Mug.: 688 630 754



atxi murka

#4. Hegaz

Ez naiz zurekin ondo akordatzen
txikia nintzela eta goiz erretiratu zinen

Gutxi dakit zutaz
arrotz zait gurekin bizi izan zenuen denbora

Nire ametsetan agertu berri zara
uste dut zu zarela
eta nago ametsetan hegan egiten erakutsiko didazula.

AGENDA

Kultur ekitaldiei buruzko informazioa eta sarrera salmenta www.oñati.eus webgunean (QR kodean) edo Txokolateixan



MUSIKA

EKAINAK 12 / 19:00

'GANBARA TXIKI'REN KONTZERTUA

'Oñati Ezagutzen' egitasmoaren baitan, 'Trikitraka Oñatiko Trena' Ganbara Txiki abesbatzaren emanaldia. [Santa Ana](#).

MUSIKA ESKOLAKOEN IKASTURTE AMAIERAKO EMANALDIAK

Ekainak 14 (Lazarraga lorategia, 18:00): Prestakuntzako ikasleak eta Legazpiko Gazte Band taldea; **Ekainak 15** (Santa Ana, 18:00): Talde ezberdinen emanaldia; **Ekainak 16** (Lazarraga lorategia, 18:00): Musika eta Mugimenduko ikasleen emanaldia.

ERAKUSKETA

EKAINAREN 13ra arte /

PINTURA ERAKUSKETA

Kultur etxeko pintura ikastaroetan parte hartu duten gaztetxoek lanak ikusgai, egunero (18:00-20:00) [Kultur etxean](#)

EKAINAK 8 - 19 /

LESBOSEKO ERREFUXIATUEN KANPAMENDUETAKO ERREALTATEA

Yousef Alshewaili irakiarraren argazkiak ikusgai [Eltziako topagunean](#)

HITZALDIAK

EKAINAK 3 / 16:00

NACIMIENTO Y VIDA DE LA CORTE PENAL INTERNACIONAL. BALANCE DE 20 AÑOS DE ACTIVIDAD

Hizlaria: M^a Dolores Bollo (EHU) Lege Soziologia Institutuak antolatuta. Online (Zoom). Izena emateko: m.mesonero@iisj.es.

EKAINAK 11 / 18:30

ETXETIK MUSEORA: LUZAIDAKO ETNOGRAFIA ESPERIENTZIA

Hizlaria: Suberri Matelo, Aranzadi Zientzia Elkarteko kidea. [Santa Ana](#).

EKAINAK 18 / 18:30

GORDAILUA: TRASTE ZAHARRAK ONDARE

Hizlaria: Xabier Kerexeta Erro, Gordailuko arduraduna. [Santa Ana](#)

SOLASALDIAK

ZAINTZA LANEN INGURUKO SAIOAK

Zaintza lanen inguruan Jone Arrazolak eta Miren Aranguren egin duten ikerketan lanaren inguruuko gogoeta egiteko saio irekiak ([kultur etxean](#), 17:00-19:00).

Ekainak 15: 'Amatasunak: tradizioa eta askatasuna sokatiran'; **Ekainak 22:** 'Zaharrak berri: Oñatiko etxeko langileen auzia'; **Ekainak 29:** 'Hartu eta eman: zaintza lanen demokratizaziorantz'.

JAIALDIA

EKAINAK 26 /

TRIKITIXA, DANTZA ETA BERTSOAK

Lizargarate Trikitizale Elkartek antolatuta. Sarrerak (dohainik) egun bat lehenago egongo dira eskuragarri udalaren webgunean eta Txokolateixan. [Santa Ana aretoan](#)

Udan ere
EUSKARAZI!

UDAKO EUSKARA IKASTAROAK CURSOS DE VERANO DE EUSKERA

UDAL EUSKALTEGIAN C1 MAILA PRESTATZEKO IKASTAROA

- DATA: Ekainaren 28tik uztailearen 23ra
- ORDUTEGIA: 8:30-13:00
- ORDU KOPURUA: 80

- PREZIOA: 118,10€

Langabezian egon eta subsidiarik jasotzen ez dutenek, doan; jasotzen dutenek, berriz, matrikula hobarritua izango dute.

- MATRIKULA EPEA: ekainaren 1etik 25era, euskaltegiko idazkaritzan. Gehienez ere 10 laguneko taldea osatuko da, eta izen-ematearen hurrenkeran onartuko dira.

- BABES PROTOKOLOA: Derrigorrezkoa izango da musukoa jartzea eta higiene neurriak hartzea.

- OHARRA: Ikastaro honen helburua HABEko 2. deialdiko azterketa itxira joateko prestatzea da.

'Kalean' EGITARAU

Udaleko Kultura sailak uda partean antolatzen duen KALEAN egitaraua ekainean jarriko da martxan. Sarrerak dohainik dira, baina aforo mugak direla eta, aurrez hartu beharko dira udalaren webgunean, plazako leihatila digitalean edo Txokolateixan. Hona hemen ekainerako programatu diren aurreneko ekitaldiak.

EKAINAK 21

Lazarraga lorategia / 18:00

Musika Eskolako ikasleen kontzertua

Jose de Azpiazu musika eskolako ikasleen kurtso amaierako emanaldia

EKAINAK 25

Asentzioko ermitan / 22:00

Ganbara Abesbatza

Ganbara Abesbatzaren 'Erraiak' kontzertua.

EKAINAK 30

Lazarraga lorategia / 19:00

Maren

Gallartako musikari gaztearen kontzertua.



Hileko gomendioa

Inoiz pentsatu duzu nondik datozen gosaritan jaten ditugun zerealak? Michael Hollan adituak azaltzen digu nola jaten duten landareek eguzkia, guk jaten ditugun elikagaiak sortzeko, erabiltzen ditugun materialak ekoizteko, baita arnasten dugun airea sortzeko ere.



FARMAZIA

ANDUAGA

San Lorentzo 3 ☎ 943 78 21 16

Ekainak 1, 9, 10, 18, 19, 20, 28 eta 29. Uztailak 7 eta 8.

IGARTUA

Kale Zaharra 1 ☎ 943 78 01 22

Ekainak 2, 3, 11, 12, 13, 21, 22 eta 30. Uztailak 1, 9, 10 eta 11.

GARATE

Kale Barria 42 ☎ 943 78 05 58

Ekainak 4, 5, 6, 14, 15, 23 eta 24. Uztailak 2, 3 eta 4.

ULDAIN

Kale Barria 6 ☎ 943 78 11 28

Ekainak 7, 8, 16, 17, 25, 26 eta 27. Uztailak 5 eta 6.

ZINEA



Ekainak 4 - 7

ZINE KLUBA:

- **NAGUSIAK:**
DRUK (OTRA RONDA)



GAZTETXOAK:

-

Ekainak 11 - 14

ZINE KLUBA:

- **NAGUSIAK:**
POLIAMOR PARA PRINCIPIANTES



GAZTETXOAK:

-

ORDUTEGI BERRIA

Zine-kluba: Osteguna (19:00)

Nagusiak: Ostirala, larunbata eta igandea (19:00). Astelehena (19:00 / ikuslearen eguna)

Ekainak 18 - 21

ZINE KLUBA:

- **NAGUSIAK:**
LA CASA DE CARACOL



GAZTETXOAK:

-

OHARRA:

Ikasturteko azken emanaldiak. Uda ostean, irailarekin batera itzuliko dira zine emanaldiak



MERKATU TXIKIA

GARAJEA SALGAI Garaje itxia salgai Ugarkaldeko 1 zenbakian (21,42m²). Deitu: 626151019 (Julen)

KLASE PARTIKULARRAK Ingeniari-tzako ikaslea naiz eta LH, DBH eta Baxilergoko ikasleei klase partikularrak emateko prest nago. Deitu: 688816197

KLAS PARTIKULARRAK Lehen Hezkuntzako eta Entzumena eta Hizkuntzako irakasleak (logopeda), partikularrak ematen ditu: 618310126

ODOL ATERALDIA

EKAINAK 14 / 16:30-20:00

Enpresagintza fakultatean

ARANBURU ALTZARIAK

Kale Zaharra, 21
Kale Barria, 11
Lizaur A., 7
OÑATI
Tfnoak: 78 11 60 / 78 05 73

ESTILO
GUZTIETAKO
ALTZARIAK

LANPARAK,
TAPIZAK,
KORTINAK

NI
moda

MODA BEREZIA

Kale Barria, 12
Tel. Faxes: 943 71 62 40



(*) Itten: arrastua, pistia

>> HISTORIA TXATALAK

PESETERUARENA

Arantzazu erre eueiñekua, Txarrasko aittajunaren kontakizuna

Arantzazu aldizkarixan, 1968ko ilbaltzian, Arantzazu erre eueiñeko idazlana agertu zan, Esteban Arriaran jaunak, Txarrasko ezizenekua, Aitta Villasanteri kontautakua. Hauxe dozue orduko testua herriko euskeran jarritta:

Hemen zerbait hartu guran etorri xat aitta Villasante frantziskotar argi eta zintzo hau nik dakittena esateko asmuan guraso zaharrai entzunda. Lehenengo hasiko gara Arantzazu erre eueiñetik:

“Gure zaharrak esaten eueiñez, Arantzazu erretiaz pena, nahigabe, tamal haundixa hartu euen danak, baiña batez be Oñatiko herrixak. Rodil gaiztua etorrela jakin eueiñian kontzejal egozenak —gure aittajuna izan bihar zan bat— sakeaitteko asmuan etorriko zala-eta, alhondigan egozen zaragixak gure bodega zaharrera ezkutau ei zittuain. Gabe hartan Antzuelako semia Iñurrigarro (apenas izan bihar eben pieza zuzena) Rodillen ordenaz fan ei zan Arantzazura pesetero soldaduakin, peseteruak esaten otsaiñakin. Honeik pesetero honeik izan bihar euen dirutan pagaitten zittuanak Gobiernuak. Peseta bat jornala eukaillako peseteruak esaten ei osten. Arantzazura fan eta bapo jan eta eran egin ondorian, aitta Guardianuari esan ei otsan erre egin bihar ebela Rodillen ordenaz, eta Ama etara gura baeuein etarateko, eta bestela ezeguela ezertarako astirik. Hala su emun eta Ama etara ei euen eta fraile gizajuak negarrez oiazeilla Oñatiratu ei ziran. Eta kondaira-edo entzuna da, baiña gure amandriak esaten eben pesetero batek zela baionetiarekin egin otsan Amari, harek be ikusi bihar ebela-eta; eta nardapera amilddu eta han lehertu ei zan. Kalera etorri ziranian, pesetero haren faltia igarri ei euen”.

Hiztegixa

Tamal: pena, nahigabe
Zaragi: zahagi (= odre, pellejo)
Antzuela: Antzuola
Kondaira: ipuin

Narda: erripa handia eta zikina
Amilddu: jausi, erori
Lehertu: errebentatu
Igarri: antzeman




Lehenengo gerra karlistia (1833-1839)



Arantzazu, 1870 aldera

ANTXIÑAKO FOTOGRAFIAK



Oñatiko bankuak eta beste

Mutikotan ezagutu gittuan bankuak plaza inguruan egozen, oraintxe letxe: **Guipuzcoano** izenekua Irizar estankuaren parian, **San Sebastián** Kale Barriko hasieran ezker aldetik, eta **Banco de Vizcaya** Txurrukaneko arkupetako ertz batian. **Gipuzkuanuak** eta **Sansebastianak**, orduan esaten geben moduan, gerra aurreko hamarkadetatik ziharduein oñatiar batzuen diru-kontuak gordeten, kontrolaitten, negoziatzen eta bideraketan. **Bizkaikua** gerra ostekua zala esango neuke. Oker banabil, zuzendu egidazue, mesedez.

Azkenengo urtietan hamaika izen- eta leku-aldaketa izan dittue Oñatiko bankuok be. **Gipuzkuanuak** betiko tokixan jarraitetan dau, baiña 2012tik aurrera **Sabadell** bankuak bereganatuta eta izen barrixarekin; **Bizkaikua** Txurrukaneko arkupetatik haruntzatxuago fan zan 1961-1962xan Zazpibideta-Kale Zaharreko **Bujero-Izarra** taberniak eukan lokaletara, eta geroztik hainbat fusiñoren ondorioxo **BBVA** bihurtu da (Banco Bilbao Vizcaya Argentaria); Kale Barriko **San Sebastián** bankuak 1972 aldera itzi otsan lanari; eraikin hau eta aldameneko etxia 1975ian eretsi ziran kalia zabaketako. Donostiako diru-etxe hori orduantxe iruntsi eben **Hispano Americano** bankuak.

Gaurko argazkittako batian banku horrek **bota aurretik zelako itxuria** eukan ikusi leike. Kantoiaren sarrera estua be somaitten da. Hurrengo agiri dan etxia, barriz, 1971n lurreratu euen, haren orubian hiru pisutako eraikiña jasoteko, behekaldean **Laboral Kutxaren** bulego barrixak ifiñixaz. Lehengo etxe zaharrari **Oñaterena** esaten xakon, abizen horretako familia bertan bizi zalako. Beheko partian **Esteban Oñatek** jardun eben zapatari-lanetan luzaruan. Esteban zapata-konpontzaillia ez ezik, bandako musikua eta argazkilarixa be bazan. Entzuna dakot XIX. eta XX. gizardixen bueltan **sagardotegixa** egon zala etxepe horretan.

Beste fotografixan bankua eretsita agerketan da eta aldameneko etxia bota barik. Honi **Gordoanekua** izena emuten gotsan, Txantxilipizteiko Zelaietako Gordoatarren kale-etxia zalako. Hemen be bazan denda bat: Goierriko Zaldibiatik, eta Ameriketatik zihar, Oñatira etorri xakun **Juan Joxe Garmendiak** jarrittako **drogerixia**. Goguan dakot, noizian behin pagaren bat eskuraketan gebenian, hara faten giñala gomazko karamelo gozuak erostera. Orain **Sustrai** fruterixia dago inguru horretan eta **Banco Santander**-en bulegua. Ba, **Sansebastiana** ezkutau baldin bazan be, gaur egun bidekurtze hori Oñatiko **World Street** txikiña dogu, bertan Santander, Laboral Kutxa eta Kutxabank diru-etxeak alkarri begira dagoz-eta. Aurrezki Kutxen gorabeherak, **Kajadeahorresena**, hurrengo baterako jare biharko dittugu.

Argazkixak sarian batera eta bestera dabiltzen itturri anonimuetatik aillegau xaku. Argibidiak Xabier Zelaia, Tere Irastortza, Rosarito Oñate eta Bixente Urrutiari zor dostegu. Milla esker danoiri!



Innovation from nature

*Egurra eraldatuz,
gure inguruaren ongizatea eraldatzen dugu*



www.lana.eu

